

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a / 628. zenbakia

PREFERENTERA BIDEAN

Mondra erregional mailako liderra da, baina geratzen diren partidu biak irabazi egin beharko ditu



ORAIN ETA HEMEN: ALDERDI POLITIKOEN AURKEZPENA/6-7 • KIROLA: ARRASATE-OÑATI LASTERKETA/10

AZALA: ALEX AZKARATE. MARRAZKIA: ARREGI

EDERTASUN GIDA/2

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak**



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61-56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

JIVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkien konponketa • Artazi, laban, eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza etxea
Tel./Fax: 943 79 76 03

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Eraikuntzak

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

KALEINKESTA/ Ibili zara Gernika Oiñezkuen Zumardixen? Eta, gustau jatzu pasialekue?



KONTXI IÑARRA
Etxekoandrie

Bai, ibili naz pasietan, eta oso ondo dau. Bazan ordua lasai eta auto barik pasietako lekue eukittek. Gaiñera, oso aldatz gutxi dauko eta jente asko ibiltten da pasietan.



MIKEL OTXANDIANO
Langabie

Bai, baiñe ni neu inaugura aurretik ibili nitzen, eta, gaiñera, lanak bukatu barik euzen. Oso itxura politte daukola uste dot, eta danok pasietako moduko lekue dala esango neuke.



MAIDER OSINAGA
Langillie

Bai, ibili naz pasietan. Umiekin juen izen naz, eta, egixe esan biher badot, umien karruekin ibiltteko aldatz asko dauko. Dana dala, pasietako oso leku aproposa da.




ELENA MARTINS
Langillie

Ondiokan ez dot paseue ikusi, baiñe badauket jueteko gogue. Dagueneko paseuen ibilli dien lagunek esan dustie oso ondo dauela. Kotxe artien ibilli biherrien, lasai-xago ibilliko gare oin.



FRANCISCO HIERRO
Langillie

Bai, sarritan ibiltten naz pasialeku horretan, asko gustetan jat-eta. Pasialeku hori egittie oso idea ona izen da, baita inbersiño ona be. Ez dot uste aldatz askorik daukonik, oso ondo dau.



JOSE IGNACIO POMBAR
Langillie

Ondiokan ez naz pasialeku horretan ibili, baiñe kuriosidadie dauket zelan geratu dan ikusteko. Uste dot pasialekue leku onien egin dauela eta pasialekue bera be ondo egindde dauela.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA Bihar, zapatua, egun osoan barrena, 3x3 Saskibaloitxapelketa izango da jokoan Laubide plazan. Txapelketak joan den urtean izan zuen arrakasta izaten badu, ehunka gaztetxok saskibaloian jokatu dute bihar. Txalagarria da horrelako ekintzak antolatzen dituztenen lana, eta oraingoan aipamen berezia egingo diogu Arrasateko Saskibaloitaldeari.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Helegitea Udaltzaingoari

Barne Sailak helegitea ipini du Udaltzaingoaren kontra, bederatzidaltzain berri direla-eta.

KIROLA /11

Koadrilen Pilota Txapelketa

Bihar, zapatua, III. Koadrilen Arteko Pilota Txapelketa hasiko da Musakolako kiroldegian.

ZAHARRAK /17

Debagoieneko mahai-jokoak

Apirilaren 28an ibarreko erretiratuek Debagoieneko mahai-jokoaren finalak jokatu zituzten.

ASTEKO DATUA

42

PANEL GERTU DAUDE HAUTESKUNDEETARAKO

Hauteskunde-kanpaina hasi dela-eta, alderdi politikoeak 42 panel erabili ahal izango dituzte Arrasaten. Urte osoan jarrita egoten direnez gain, Otoran eta Musakolan gehiago jarri dituzte.

BESTE EKESANA

“**ESK eta STEE-EILASEk gerraren salaketa izango dute maiatzaren 1eko ekitaldiaren ardatz, gerra**

kapitalismoaren tresna basatia dela kontuan izanik (...) Herritarren artean bakearen aldeko kultura eraikitzeko lana daukagu egiteko (...) **Euskal sindikatuen gehiengoarekin ekitaldi bateratu bat egitea gustatuko zitzaigukeen. Aspaldi ez dela hain emaitza onak eman zituen lankidetzara berriro itzultzeko aukera ematen (...).** Baina, ondorioa ez da gogobetegarria. Ez gure sindikatuentzat, maiatzaren 1eko ospakizuna gure aliatu naturalekin batera ospatu ezinik geratzen baikara. Ez eta batasunaren ginetik gure sindikatuen protagonismoa lehenetsi dugula pentsa dezaketentzat”.

JABIER ABALDE
‘EGUNERO’/03-04-30

HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



*Nahasmeneak
etsipenetik
pasotismorantz*

Badira hitz jario interesgarria dutenak, are gehiago, hitzaldi interesgarriak aberasteko gaitasun hori edozein unetan izateko gai direnak ere. Lerro hauek idazten ari zaizuenak ez dauka horrelako dohainik, horregatik zuengana zuzentzeko hitzordua heltzean hausnarketa garaia izaten da. Gehiengotan, bereziki hunkitu nauen gaia nagusitzen da argitaratzeko orduan, beraz ez da oso zaila ohartzea gure ama hizkuntzaren biziberritzeak arduratzen nauela nagusiki. Hunkipen berezirik ez dagoenean pil-pileko gaiak jorrazteko ausardia izaten dut, betiere iritzi artikulatu batek duen subjektibotasunetik eta irakurlearengan hausnarketa eragiteko asmo irmoz.

Oraingoa aldiz bestelakoa da. Hunkipenak etsipenari zabaldu dio bidea, gizartean beti kritikatu dudana pasibotasun etsituak kutsatu egin nau. Egoera politikoa nahasiak

gizartea bi zatitan banatu baitu. Ez nabil abertzale eta espainolen arteko zatiketaz, politikarekiko jarrera aldetik dagoen zatiketaz ari natzaizue. Euskal Herriak egunkari gehien eta irrati zein telebistako berrien ikus-entzule gehien izan du beti, herri honek

“Euskal Herriak egunkari gehien eta irrati zein telebistako berrien ikus-entzule gehien izan du beti”

politikarekiko duen atxikimenduaren adierazgarri. Herri honek duen tentsioaren ondorio dela esan dute zenbaitzuk, baina askori tentsio hori gehiegizkoa egiten ari zaie eta lehen jakinmina eta zaletasuna pizten zuen tentsio-

ak orain pasotismoa sendo elikatzen du. Ni neu ere, kutsatzen hasia naiz, pasotismo honek dakartzan ondorioak nabarmen larritzen nauen arren. Ez da inondik ere irudipen kontua, datuak baititugu, batez ere Nafarroan, non badiren herriak inor aurkeztu ez dena hautagai izateko. Pneumonia baino kutsagarriagoa ote egoera nahasi honek sortutako pasotismoa?

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 9**
Amezua, Santa Marina 32... 943 79 09 74
- ZAPATUA, 10**
Zabala, Zarugalde 42... 943 77 16 30
- DOMEKA, 11**
Ruiz, Maala 31... 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 12**
Español, Araba etorb. 17... 943 79 18 65
- MARTITZENA, 13**
Azkoaga, Ferrerías 5... 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 14**
Azkoaga, Iturriotz 33... 943 79 79 99
- EGUENA, 15**
Corcuera, M. Aranbarri 1... 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Igualetoia... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak... 943 79 39 00
Emakumeak... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak... 112
Gurutze Gorria... 943 76 55 76
DYA... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua... 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak... 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea... 943 03 52 52
 - Karpoko kontsultak... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate... 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea... 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)... 943 12 01 62
Gasa... 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak... 943 79 12 22
PESA... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron... 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

MARTXOAREN 3A GOGOAN
Martxoaren 3ko Biktimen Elkartek 30 bat artistaren lanak -komikiak, marrazkiak, poemak...- batu eta erakusketa jarri du Monteironen. Maiatzaren 18a arte egongo da ikusgai.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Maiatzaren 15ean, eguenean, *Kamchatka* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

HELDUEN HEZKUNTZA
Arrasateko Helduen Hezkuntza Ikastetxeak (HHI) 2003ko ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu du. Jo helbide honetara: Ferrerías 28-B. Edo deitu 943 77 11 72 telefono zenbakira.

IKASTOLAREN ASTEA
Maiatzaren 12tik 17ra bitartean Arizmendi Ikastolak Ikastolaren Astea antolatu du. Aste barruko ekitaldiak ikastolaren guneetan izango dira eta zapatuan, berriz, kalera irtengo dira.

EXTREMADURAKO ASTEA
Corazon de Encina Extremadurako taldeak XIII. Kultura Astea antolatu du. Etzi, domekan, hasi eta maiatzaren 18a arte hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Arrasate.

AEDren AGENDA

HERRI URRATS
Etzi, domekan, Herri Urrats ospatuko da Senpereko lakuan. AEDk autobusak antolatu ditu, eta Hegohaxe taldeko kideek bezperatik hara joko dute antolakuntzan laguntzeko.

ARRASATE-OÑATI
AEDk eta Laixanek Arrasate-Oñati lasterketa antolatu dute bihar, zapatuan.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Jesus Mari Zabartek gose greba utzi zuen

Jesus Mari Zabarte presoaren aldeko manifestazioa egin zuten, eta 1.500 lagun inguru batu ziren. Gose greban ia hilabete pasatu zuen Las Palmasko Salto del Negro espetxean, baina osasun egoera oso larrian zegoenez, utzi egin behar izan zuen. Bi urtean lau gose greba egin zituen.




BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pausajia"




Ibiltzeko era, baldarra denean. — Solamentian eztauka pausaje jaso-jasua.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Bonba' Almeneko 'Berriketari' saioan

Almeneko ikasleek hasi dituzte *Berriketari* saioak. Astelehen eta martitzenetan emititzen da saioa Arrasate Irratian, iluntzeko 7.30ean. Elkarrizketak dira nagusi tarte horretan. Esate baterako, apirilaren 29an emititutako saioan Aitor Lopez Rekarte Arrasateko Realeko futbolaria elkarrizketatzeko aukera izan zuten. Martitzenean, maiatzaren 13an, berriz, Izaro Iraeta, telebistako aurkezle ezaguna izango dute gonbidatu nagusi.



Martxelo Otamendi egunkari berriaz

Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaria elkarrizketatu dugu aste honetan herriko irratian. Ekainaren bukaeran kioskoetan egongo da euskarazko egunkari berria, eta horren ganean jardun du Otamendik. Dirua batzeko abiarazi duten kanpaina ere azaldu digu. Zapatuan eta domekan, 11:00etan, entzun dezakezue. Bestalde, Eusebio Inarrak eta Espe Lizarralde Sakamantekasen mitoaz egin digute berba *Kontu Kontari* atalean.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 3	3 °C
MAXIMOA Domeka, 4	28 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	155 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 30	20 °C 10 °C — l/m²
Eguena, 1	24 °C 6 °C — l/m²
Egubakoitza, 2	18 °C 11 °C — l/m²
Zapatua, 3	28 °C 3 °C — l/m²
Domeka, 4	28 °C 8 °C 64,1 l/m²
Astelehena, 5	13 °C 12 °C 20,6 l/m²
Martitzena, 6	12 °C 9 °C 70,9 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Efemerideak, zozketak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**
19:30 **Berriketari**: Almeneko ikasleentarte
20:00 **MIR**: Musika tartea.
- MARTITZENA**
19:30 **Berriketari**
20:00 **Txortxorrien**: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**
19:00 **Planing Prest**: Deiane Arrieta
- ZAPATUA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**
- DOMEKA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Trans Europe Foot Race lasterketa gurean

Apirilaren 30ean iritsi zen Arrasatera Lisboan hasi eta Moskun amaituko den lasterketa hori. Arrasaten hamabigarren etapa amaitu zen. Lasterkariak Miranda de Ebrotik irten ziren, eta Musakolako kiroldegian amaitu, 72 kilometro korrika egin eta gero. 15:30ean iritsi zen lehen lasterkaria: Robert Wimer alemaniarrek irabazi zuen lasterketa gogor horretako hamabigarren saioa.

Lasterkariak apurka-apurka iritsi ziren; atsedean hartu, afaldu eta azkar oheratu ziren guztiak, hurrengo egunean goizeko seiak aldera, irten behar zuten eta Donostia aldera.


Hauteskundeetarako panelak gertu

Hauteskunde kanpainarako guztiak egon behar du gertu, eta propaganda kanpainaren barruan, publizitate kartelek berebiziko garrantzia izaten dute. Azken asteotan udaleko brigadako langileak jo eta ke ibili dira propaganda ipintzeko balio duten panelak jartzen.

Kartel guzti horiek Arrasateko zenbait gunetan aurkituko dituzue, leku estrategikoetan, hain zuzen ere. Dena da beharrezko maiatzaren 25ean izango diren hauteskundeetan alderdi politikoek herritarron botoa eskuratu ahal izateko ahaleginak egin ditzaten.

Eguazten gauean ur mozketa

Zerrajera 2 eremuan -tren estazio zaharraren inguruan- egingo dituzten babes ofizialeko etxeen lanak direla eta, eguazten gauean ur mozketa izan zen herrian. Lanak gaueko hamarretan hasi ziren, eta lanok egiteko langileek Urkuluko ura dakarren hodia itxi egin zuten, lekuz aldatzeko. Gaueko hamarretatik goizaldera arte Urkuluko ura beharrean biltegiko ura izan genuen arrasatearrok, eta zenbait lekutara, presio txikia zegoenez, ez zen urik iritsi.



Hogeita bederatzi urteren ostean, etxean

Azken 29 urteak herritik kanpo egin eta gero, Mikel Pie-dehierro arrasatear iheslari ohia etxera itzuli da. Harrera beroa egin zioten joan den zapatuan Musakolan. Horrekin batera, egubakoitzean manifestazioa egin zuten, Valdemoroko presoak egiten dabiltzan gose eta egarri greba salatzeko.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Etorkizunak esango du

Irakeko gerra, sarraskia eta horren guziorren erantzukizuna isilarazteko, PPk Aita Santua Madrileran eraman du, iritzi publikoaren aurrean absoluzioa jasotzeko eta izan dituen kritikak ezkutatzeko. Hauteskundeak datoz eta badirudi trikimailu guztiak balio dutela. Horra hor, esaterako, Euskal Herrian egurra emateak PPri Espainian

ematen dizkion etekinak.

Batasuna legez kanpo utzi izana eta orain AuB eta herri plataformei hauteskunderen parte hartzea ukatu izana ez da inola ere bidezkoa. Gaur egun, Europa mailan, ez dago beste gobernurik alderdi politikoak legez kanpo utzi eta hainbeste komunikabide itxi dituenik. Horren harira, Espainiako gobernuak Turkiako

gobernuak lortutako markak atzean utzi ditu.

Egin itxi zutenetik bost urte igaro dira. Egunkaria ere itxi zuten eta Batasuna, AuB eta plataformak legez kanpo utzi dituzte. Justizia egin dadin, Europako epaitegietara jo beharko dute. Etorkizunak arrazoia eman go die, ziur baietz.

Horren parean, Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko sarraskiaren biktimak. Horiek ere lanean dihardute, haien ahotsa isil ez dadin.

ASTEKO IRUDIA



OIHAN VEGA

SAN ANDRES AUZOKO PLAZA BERRIA INAUGURATU ZUTEN

San Andresen plaza berria inauguratu zuten zapatu goizean. Plaza berriari, baina, lehengo plazaren izen bera jarri diote: Maiatzaren leku plaza. Egia esatearren, ez zegoen izen zaharra zertan aldatu. Inauguraziorako egun ezin aproposagoa aukeratu zuten, zapatuan San Andresko jaiak ziren eta. Xabier Zubiza-

rreta Arrasateko alkatearen ustez, Kontzezino eta San Andres arteko gunea gaizki aprobetxatuta zegoen, eta orain, lanak amaituta, pozik azaldu zen proiektuaren emaitzarekin. Itxuraz, herritarrak ere pozik geratu dira plaza berriarekin; izan ere, aisialdirako leku berriak beti dira eskertzekoak. /X.U.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40



BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

HAUTESKUNDEEN USAINEAN/ Ezker Batua

Zortzi urtez zinegotzi izan eta gero, berriro ere Joseba Ugalde da EBren alkategai


UBANE MADERA

Gipuzkoako koordinatzaile Antton Karrerak lagunduta, Ezker Batua alderdiak Joseba Ugalde aurkeztu zuen Arrasaterako alkategai. Joseba Ugalde-ekin batera, Debagoieneko gainerako hautagaiak ere egon ziren aurkezpenean, baita Batzar Nagusietarakoa ere.

Zortzi urtez zinegotzi izan eta gero, Joseba Ugalde da berriro ere Ezker Batua alderdiak aurkeztu duen alkategaia. Zinegotzi izateaz gainera, gaur egun Fagorko Kontseilu Sozialeko presidentea ere bada Joseba Ugalde.

Joan den eguaztenean (hilak 30) egin zuten aurkezpena, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Arrasateko zerrendaburuarekin batera Debagoieneko gainerako alkategaia ere aurkeztu zituen Antton Karrerak, baita Batzar Nagusietarako hautagaia ere. Antton Karreraren esanetan, Ezker Batuak dagoeneko erakutsita dauka Euskal Herrian eta Euskal Herriko herrietan dauden arazok kudeatzeko gaitasuna. Hain justu ere, horixe da alderdi ezkeriarraren helburuetako bat, betiere, giza eskubideak errespetatu eta elkarrizketaren, demokrazian eta askatasunaren bidetik.

Joseba Ugaldek, bestalde, hamar puntutan oinarritutako programa politikoa aurkeztu zuen Arrasaterako. Besteak beste, Egitamu Orokorraren gainean adie-



Joseba Ugalde Arrasaterako alkategaia aurkezpenean. Haren ondoan, eskuman, Antton Karrera Gipuzkoako koordinatzailea.

razi zuen zenbait auzokiderek sortu diren desadostasunak konpontzen ahaleginduko direla. Horrez gainera, gaur egungo etxebizitzaren eskaerari aurre egiteko proposamenak egin zituen, Arrasateko merkataritzari bultzada

emateko neurriak proposatu zituen eta aisialdirako ekimenak aurkeztu zituen; esate baterako, erretiratuendako ortuak egitea.

Hezkuntzaren arloan, berriz, 0 eta 3 urte artekoendako hezkuntza publikoaren alde egin zuen;

herrian dagoen aparkaleku falta konpontzeko behararen gainean berba egin zuen eta herritarren parte-hartze zuzena bultzatzeko formulak aurkeztu zituen: aurrekontuak erabakitze orduan parte hartzeko aukera, adibidez.



EAJ/EAK hauteskundeetarako hautagai guztiak aurkeztu zituen

Joan den eguaztenean (hilak 30) aurkeztu zituen EAJ/EA koalizioak hauteskundeetarako hautagaiak. Tartean, Arrasateko politikagintzan lehenagotik ezagun diren kideak aurkeztu zituen zerrenda horretan. Bestalde, Ignazio Lakuntza alkategaia esan zuen, besteak beste, EAJ/EAK proiektu berria gura duela Udalerako eta Arrasate bizi izateko eta lanerako herri egokia izatea lortzea.

LABUR

Hauteskunde-mahaietarako zozketa egin zuten

Joan den astean zozketatu zituzten hauteskunde-mahaietan egon behar duten arrasatearren izenak. 33 mahai egongo dira Arrasaten; mahai bakoitzeko presidentea bat eta beste kide bi eta haien ordekoak behar dira. Hortaz, 297 laguni egokituko zaie hauteskundeetan lan egitea. Horiiek etxean jasoko dituzte jakinarazpenak. Eta maiatzaren 25ean lan egiteko arazoren bat izanez gero, errekurtsioa aurkeztu beharko dute lehenbailehen Hauteskunde batzordean.

Saharar umeak ekarri gura dituzte Arrasatera

Oporrak Bakean izeneko programaren bitartez, udan 10 ume saharar Arrasatera ekartzeko asmoa du Udalak, arrasatearren etxeetan bizi daitezkeen. Hain justu, 7 eta 12 urte arteko ume sahararrak dira. Tyndoufeko kanpalekuan jaio eta bizi direnak; ekimenaren helburua da ume horiei jasaten dituzten gabeziak apur bat ahaztu eragitea, eta umeok mendiak, basoak, errekek, itsasoa eta horrelakoak ikustea.

Ekimen horretan parte hartu gura duten arrasatearrek maiatzaren 16a baino lehen jo beharko dute Udaletxera, izena ematera.

Helegitea Arrasateko udaltzain berrien kontra

Arrasaten bederatzia udaltzain berri daude bizpahiru hilabete-tik hona. Hain zuzen, euren lanbidean jarduteko ikastaro bat egin beharra zuten Arkauten. Baina joan den egubakoitzean Udalean jakin zuten, Eusko Jaurlaritzak ukatu egin die ikastaroan parte hartzea, Barne Sailak helegitea ipini du-eta. Itxura denez, udaltzainek lanpostuetarako hautaketa proba fisikoak egin zituztenean epaimahaiaren quorumik ez zegoelako. Hain justu, mahaiaren presidentea falta zelako ipini ei dute helegitea.

KALE BORROKAREKIN ZERIKUSI BARIK
Argitu beharra dago, era berean, helegite horrek ez duela zerikusirik herriko zinegotzi batek lehenago egindako eskaera batekin. Hain justu, udaltzain berrietako bat kale-borroka ekintzetan nahastuta egon zitekeela-eta, zinegotzi horrek gaia aztertze eskatu zuen.

Horren harira, Jose Mari Uri-

zar **Ametzu** zerbitzaburuak honako esan zion Goierna Telebistari: "Mutil horrek eskatutako datu guztiak ekarri ditu, eta ez dauka inongo kargurik, ez dago inabilitatuta eta ez du zigor penalik. Hori horrela, guretako beste edozein modukoa da". Eta zera gaineratu zuen: "Jaurlaritzatik bidalitako errekurtsioan ez diote horren gaineko ezer".

ERREKURTSOARI ERREKURTSOIA
Horrela, bada, Arrasateko Udalen iritziz, quorumaren argudioak ez du zentzurik helegitea ipintzeko orduan. Eta errekurtsioa ipini diote helegite horri. "Errekurtsio horri beste errekurtsio bat egin diogu eta hori Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian dago". Hortaz, epailearen erabakiaren zain daude orain.

Edozelan ere, bien bitartean, udaltzainek lanean jarraituko dute. Are gehiago, joan den otsailaz geroztik funtzionarioak dira.

HAUTESKUNDEEN USAINAN / Aralar

Joxe Etxeberria buru dutela aurkeztu du Aralarrek Arrasaterako taldea

UBANE MADERA

Monterronen batu ziren Aralar-kideak aurkezpena egiteko. Martitzenean izan zen. Eta Arrasateko taldearekin batera, ibarreko lau herritarako aurkeztutako alkategaiek ere hartu zuten parte. Besteak beste, azken 25 urteotako egoera zailena bizi dugula esan zuten.

Joxe Etxeberria eta Karmele Iparagirrek hartu zuten hitza Aralar alderdiaren Arrasaterako nondik norakoak aurkezteko.

Egungo egoeraren larritasunaz berba egin zuten lehenengo; baita udal batek bere jardunerako dituen eskumen urritasunaz ere. Edozelan ere, adierazi zuten Aralarrekoren batek zinegotzi izatea lortzen badu, asmo sendoa dutela herritarrei aldiro egindako eta ez egindako guztiaren kontu emateko. Eta, zinegotzirik lortu ezean, gai horren gaineko jarraipen zorrotza egiteko asmoa dutela.

Gero, Arrasaterako dituzten asmo nagusien berri eman zuten. Besteak beste, herri antolaketa garapen jasangarriaren bitartez egiteko asmoa dutela esan zuten. Adibidez, Bilborako eta Donostiarako garraio publikoa indartzeko aukera edo Beasain-Durangoren artean tren ipintzea edo antzerako aukerak aztertzea gura dute. Biodibertsitateari jaramon egiteko asmoa ere badute, nekazaritzari laguntza handiagoa emanez,



Arrasateko taldeko zenbait kideren aurkezpena, Joxe Etxeberria zerrrendaburuarekin (mahaian eserita, eskuinaldekoa).

nez, ingurumenari kalte handia egiten dioten zenbait egitasmoren berraztertzea bultzatuz...

Horrez gainera, etxebizitza beharrari aurre egiteko alokairuaren aldekoak dira Aralar-kideak. Arrasateko kulturaguneak

indartu behar direla uste dute; baita kirol eskaintza ere.

Hezkuntza arloan 0-3 urte artekoen hezkuntza publikoa lortu gura dute, Udalaren enplegu politika eraldatu gura dute eta euskara zabaltzeko lanarekin jarraitu.

Bestalde, ibarrerako alkategaiek aurkeztu eta gero, Juan Martin Elexpuruk esan zuen, besteak beste, Estatuaren azken urteotako erasoan aurrean alderdi demokratikoei erantzun bateratua eman beharko luketela.



Herriaren alde lanean jarraitu gura dute Herri Anitzeko kideak

Oraingoz legez kanpo egon arren, Herri Anitzak taldekideak aurkeztu zituen astelehenean. Xabier Zubizarretaren esanetan, ez dute Espainiako Estatutik egindako gerra deklarazioari erantzuteko asmorik, baina herriaren eraikuntzan lanean jarraitu gura dute. Horrela, hauteskunderen ostean ezin badute erakundeetan lanik egin, herriko taldeen bitartez jardungo dutela esan zuten.

LABUR

Helduen heziketarako aurrematrikula

Helduen Hezkuntza Ikastetxeak maiatzeko aurrematrikularako epea zabaldu du. Intereza duenak Ferrerriako 28. zenbakira jo beharko du edo 943 77 11 72 telefonora deitu. Honako ikasketak egin ahal izango ditu: irakurtzen eta idazten ikasi, oinarrizko ezagutzak sakondu, DBHko graduatua lortzeko ikasketak, 25 urtetik gorakoak unibertsitate sartzeko probak prestatu, goi mailako heziketa zikloetarako sartzeko probak prestatu eta atzerriarrek espainola ikasi.

Santa Marinako bolalekua egiteko lanak esleituta

Santa Marinako bolalekua egiteko lau enpresaren eskaintzak jaso ditu Arrasateko Udalak. Eta guztiak aztertu eta gero, erabaki du Excavaciones Arrasate enpresari esleitzea lan horiek. Horrez gainera, inguruko euri-sarearen desbideraketa egitea beharrezkoa dela-eta, enpresa berak egingo ditu lanok esleipen horren bitartez. Guztira 26.000 euro pasatxoko aurrekontua izango dute.

Lanak datorren martitzenean, hilaren 13an, hasiko dira. Gutxi gorabehera lau hilabete iraungo dute, irailaren 30erako bukatu beharko dituzte-eta.

Iraken gaineko berbaldia izan zen Udaletxean

Eguaztenean, Iraken aurkako gerra zuzen-zuzenean bizi izan duen Imanol Telleria euskal brigadistak horren gaineko berbaldia egin zuen Udaletxean.

Baina, hori baino lehenago, Arrasate Irratian egon zen Komite Internazionalistak taldeko kidea. Lehenik eta behin, Iraken kontrakoa gerra baino gehiago inbasioa edo eraso inperialista izan zela esan zuen. Honakoa adierazi zuen: "Ikusi genuena izan zen milioika herritar eraso horiek, bonbardaketa horiek, jasaten. Bestalde, oraingo egoera okupazio ilegala da. Irak militarki okupatuta dago eta hori nazioartean ez da legezkoa. Horregatik segituko dugu egoera salatzeko eta kaleratzeko".

ERASO EGITEN SEGITZEN DUTE

Bestalde, Irakeko egoeraren gainean adierazi zuen gaitza dela benetako egoeraren berri jakitea. Haren esanetan, handik datorren informazioa AEBetako komuni-

kabide handiek bidalitakoa delako, eta haiek informazio interesatua lantzen dutelako. Edozelan ere, zera gaineratu zuen: "Jendea hiltzen jarraitzen dute, lekuei eraso egiten jarraitzen dute. Gerra ez da amaitu".

GEZUR HANDIA

Horrez gainera, Imanol Telleriak Irakeko inbasioa gezur handia izan dela esan zuen: "Konprobatu da Irak ez dela munduarendako mehatxu".

Bestalde, Siria begi-puntuan ipini izan duten susmoaren aurrean zera esan zuen: "Ez dut uste ezer gertatuko denik. Siriak Irakek baino armada indartsuagoa dauka. Hori bai, planteatzen dabilzana da Ekialde Hurbilerako beste saiakera bat, 'bakea inposatzeko', eurek esaten duten moduan".

Bukatzeke, aurrerantzean orain arte moduan lanean jarraitzeko asmoa dutela esan zuen; arazoetan presioa egiten.




GOIKOBALUKOAK LOURDESEN

Goikobaluko abesbatzako lagunak Lourdesen izan ziren apirila amaieran, eta egun pasa joan baziren ere, ez ziren damutu. Arratsaldeko hirurak aldera iritsi ziren Lourdesa, eta gauzak hotelean utzi eta gero, bi ordu eta erdiko entsegua izan zuten Lourdesko basilikan. Entsegua amaitu eta apur bat deskantsatu eta gero afaltzera joan ziren, eta afaldu eta gero, kontzertua eman zuten Irungo Ametsa abesbatzarekin batera. Kontzertu hunkigarria izan zen, eta dagoeneko hasi dira Parisa joateko txangoa prestatzen.



AGUR AFARIA MEXIKON, ALA?

Irazki Urionabarrenetxea mondragoetarra eta Iker Etxabe zarauztarra apirilaren 26an ezkondu ziren San Juan Bataiatzailea parrokian, eta orain Costa Rican daude, ezkon bidaian. Irazkiren lagunek Donostian egin zioten agur-afaria, jatetxe mexikar batean egon ziren, baina argazkian ez daude mexikarrez jantzita. Irazki sevillana jantzi zuten, eta lagunak kordobes jantzi ziren. Guztiek ere itxura ederra zeramaten.



“BUKATU DA, SE ACABO!”

Halaxe dio abesti ezagun batek, gauza onak berehala amaitzen direla, eta bikote honi ere ordu gutxi geratzen zaio orain arte bizi izandakoaz gozatzeko. Iker Errasti eta Arantazu Ugarte bihar ezkonduko dira. Eurek egindako aukera da, hortaz, badirudi ezkondata ere ez direla horren gaizki moldatuko. Lagunen partetik: zorionak bikote!

Jende asko, gura beste olagarro eta sekulako giroa San Andresko jaietan

X.U.

Joan den aste bukaeran mondragoetar asko hurreratu ziren San Andresko jaietara. Eguraldiak lagunduta, aukera aparta egon zen Jai batzordeak antolatutako ekitaldi guztiez gozatzeko. Denetik egiteko aukera egon zen jaietan: dantzan egin, ondo jan, pailazoan kontura barre egin...

Horiek guztiak eta beste gauza asko egiteko aukera egon da San Andresko jaietan. Eta jaiak eskaini dutenaz aprobetxatzeko mondragoetar asko hurreratu da San Andres auzora.

Maiatzaren leian hasi ziren jaiak, eta goizeko hamaiketarako olagarroa dastatzeko aukera zegoen dagoeneko. Meza izan zen, eta gero, eguerdi partean, txarangarekin jaiak bizitasuna hartu zuten, eta auzoko emakumeek egindako eskulanekin gozatzeko aukera egon zen. Auzoko nagusiek ere ederto pasa zuten extremaduraren elkartean egin zuten luntxean. Arratsalde partean buruhandiak eta pailazoak egon ziren, gazteen gozamenarako. Egunean barrena bazegoen bai zerekin entretenitu, eta gauetan jaiak ez zuten behera egin. Martitzen goizean puzgarriak jarri

Jaiak maiatzaren leian hasi ziren, eta goizean goizetik olagarroa jateko aukera egon zen

San Andresko jaietara hurreratu direnek bikain pasatzeko aukera izan dute

zituzten, gaztetxoendako, eta arratsaldeko seietan txokolatjana egon zen. Gero, Trikimailu taldearen eskutik ume eta gurasoendako dantzaldia egon zen. Zapatuan eta domekan ere jaiak bizi-bizi egon ziren. Zapatuan, besteak beste, Maiatzaren Ieko plaza inauguratu zuten, eta domekan harri-jasotzaileak eta arkulariak ibili ziren. Eguraldiak sekulako mesedea egin die jaiari, eta San Andreseira hurreratu direnek bikain pasatzeko.




Esan barik doa argazkian azaltzen den urdaiazpikoak postu horretara hurreratu ziren sabelak ase zituela.

ARRASATE PRESS



Jaietan Extremadurako hainbat jaki probatu eta erosteko aukera egon zen.

ARRASATE PRESS



ARRASATE PRESS

Asteburu osoan olagarroa dastatzeko aukera egon zen.



ARRASATE PRESS

Nagusiez gainera, gaztetxoek ere bikain pasatzeko aukera izan zuten jaietan.

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati lasterketako XXI. aldia korrituko da bihar, zapatua

Joan den urtean 164 lagunek hartu zuten parte lasterketan, eta aurten ere jende asko animatuko da proban parte hartzera

XABIER URZELAI

Joan den urtean jende asko animatu zen Arrasate eta Oñati banatzen dituzten kilometroak korritzera. Aurten ere kirola eta euskara elkartzea izan da antolatzaileen helburua. **Jantzi Kirola Euskaraz!** lelopean jende asko animatuko da bihar korrika egitera.

Joan den urtean Javier Mentxakak eta Maria Jose Gilek lasterketa polita egin zuten, eta eurak izan ziren Arrasateko azkarrenak. Lasterketako irabazlea, berriz, Aitor Uribesalgo iurretarra izan zen. Horren harira, joan den domekan korritu zen 25. Oñati Zelai krosean ere Aitor Uribesalgo izan zen azkarrena, eta argi erakutsi zuen sasoi betean dagoela. Biharko lasterketarako izena ematen badu, seguru lehenengo postuetan egongo dela.

LASTERKETAK 21 URTE EGIN DITU

Dagoeneko 21 urte pasatu dira Arrasateko eta Oñatiko koadrila

bik lehenengo Arrasate-Oñati lasterketa antolatu zutenetik. Aspalitik, baina, AED eta Laixan euskara elkarteak arduratu dira lasterketa antolatzeaz, eta aurten ere horrela egingo dute.

Proban parte hartu gura duenak lasterketaren egunean bertan eman dezake izena: lasterketa arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da, eta arratsaldeko sei eta laurdenak arte egongo da izena emateko aukera, Garibai pasealekuan bertan.

Lasterketaren ibilbidea ez dute aldatuko; horrenbestez, aurten Arrasate-Oñati lasterketan parte hartzen dutenek 11 kilometro eta hirurehun metro izango dituzte egiteko. Hori bai, korrikalariek errepidearen eskuinaldetik joan beharko dute, eta bidearen ezkeraldera pasatzen badira lasterketatik kanpo geratuko dira.

Edozelan ere, nagusien lasterketaz gainera gaztetxoendako lau lasterketa ere egongo dira, eta adinen arabera banatuko dituzte lasterketak.



Lasterketa arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da, eta sei eta laurdenak arte egongo da izena emateko aukera.

Kencik oraindik ez du partidu bakar bat ere irabazi igoera fasean

X.U.

Kenci Arrasatek 68-87 galdu zuen joan den astean Fineco La Salle taldearen kontra. Partidu hasieratik argi zegoen indarrak ez zirela parekatuta egongo, Arrasateko taldeak zazpi jokalarri baino ez zituelako eta, are gehiago, Fineco La Salle igoera fasean aurrera egiteko jo eta ke dabilelako.

Erraz irabazi zion joan den astean Fineco La Sallek Kenci Arrasateri. Arrasateko taldeak jokalarri gutxiarekin jokatzeaz gain, taldeko hiru jokalarri garaienak min hartuta zeuden; horrenbestez, pibot garai barik egin zion aurre Kencik Bizkaiko taldeari.

KANPOTARRAK HASIERATIK NAGUSI

Partidua hasi eta berehala hartu zuten aurre bizkaitarrek. Lehenengo laurdenaren amaieran kanpotarrek zortzi puntuko aldean zuten (13-21). Bigarren laurdenean gauzak ez ziren askorik aldatu. Kenciko jokalarriak errebotek eskuratzen saiatu ziren, baina eginkizun hori duten jokalarriak ez zeuden kantxan, eta taldeak haien faltan sumatu zuen. Errebote gehienak bizkaitarrendako izan ziren, eta horri esker aldean



ARRASATE PRESS

Kenci Arrasatek liderraren kontra jokatuko du igoera faseko azken partidua.

ditu egin zuten (29-44).

Bigarren laurdenetik aurrera, ez gatz eta ez berakatz. Kenci Arrasatek nahiko lan izan zuen partiduari eusten, eta Jon Basurko eta Zurutuza egotzi egin zituzten azken minutuetan.

3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA

Gaur, egubakoitza, Kenci Arrasatek igoera faseko azken partidua

jokatuko du Azpeitiko Jostaldi taldearen kontra. Norgehiagoka aurreratu egin dute; izan ere, bihar, zapatua, 3x3 Saskibaloia Txapelketa jokatuko da. Aurreko urteetan moduan, ehunka gazte animatuko dira bihar Laubide plazan izango den txapelketan parte hartzen. Beste behin Kenci Arrasateko jokalarriak ibiliko dira saskibaloia txapelketa zuzentzen.

Gaur hasiko da III. Arrasate Hiria Xake Txapelketa

X.U.

Gaur arratsaldean hasiko da III. Arrasate Hiria Xake Txapelketa. Txapelketa Arrasateko San Andres Xake Taldeak Altamiran duen egoitzan jokatuko da, eta partidak egubakoitzero izango dira, arratsaldeko zazpitan. Euskal Herri osoko jokalarriak izango dira lehian, eta txapelketan eskuratzen diren puntuak nazioarteko sailkapenerako baliagarriak izango dira.

Aurten ere Zamarbide anaiek ez dute kalerik egingo: nagusiak, Borjak, 15 urte ditu eta gaztetxoak, Danielek, 11. Biek ere zernolako maila duten erakustera

etorriko dira. Joan den urtean Borja bigarren izan zen, eta aurten txapelketa irabazteko asmoarekin etorriko da.

Bestalde, Aste Santuan Luis Angel Ortega eta Josu Tornay Euskadiko Txapelketan izan ziren, eta Luis Angel, txapelketa polita eginda, zortzigarren izan zen. Josu Tornay, berriz, ondo hasi zen, baina azken hiru partidetan hanka sartu eta 20. postuan amaitu zuen txapelketa.

Horrez gainera, Josu Tornay hil amaieran jokatuko den Espainiako Xake Bizkorreko Txapelketarako sailkatuta dago. Joan den urteko irabazlea da Josu Tornay, eta Euskadi ordezkatzeko du.

DUATLOIA

Zuhaitz Ezpeleta bigarren izan zen joan den astean jokatu zen Eibarko Duatloian

Azken urteotan beste entrenamendu egin barik, aurten ere duatloi denboraldi polita egiten dabil Zuhaitz Ezpeleta. Joan den astean Eibarko Duatloia jokatu zuen, eta bedoñarra bigarren izan zen. Zuhaitzek ez du duatloi guztietan esku hartu, aurten beste helburu batzuk dituelako, baina parte hartu duen bakoitzean sasoi betean dagoela erakutsi du. Oraingo asteburuan Arbizuko Duatloia jokatuko da, baina mondragoetarrek deskantsatzeko aprobetxatuko du aste bukaera. Duatloi denboraldia amaitzeko ez da askorik geratzen, eta azken proban, Ordizian, hartuko du parte.



XABIER URZELAI

Joan den urteko Koadrila Arteko Txapelketaren finalean giro polita egon zen, eta parte-hartzaile guztiek izan zituzten sariak.

PILOTA

Hogeita hamaika bikotek jokatuko dute III. Koadrila Arteko Txapelketa

Txapelketa bihar goizean hasiko da Musakolako kiroldegiko pilotalekuan

XABIER URZELAI

Aurten ere pilotazale asko animatu dira Koadrila Arteko Pilota Txapelketan parte hartzera. Guztira 62 lagun ibiliko dira txapelketan, eta partiduak zapatu goizetan izango dira Musakolan.

Txapelketan izena eman duten bikoteak lau multzotan daude banatuta. Lehenengo hiru multzoetan zortzi bikote daude, eta laugarren multzoa zazpi bikotek osatzen dute. Txapelketako lehenengo fasea ligaxka erakoa izango da, eta multzo bakoitzeko lehe-

nengo bikote biak final-laurdenetarako sailkatuko dira. Horrenbestez, ekainera arte ligaxkako partiduak izango dira jokoan, eta hurrengo asteburuetan final-laurdenak, final erdiak eta finala jokatu dira. Antolatzaileek San Juan jaietan egin nahiko lukete finala, baina txapelketaren gora-beherek erabakiko dute hori.

Esan barik doa txapelketan izena eman dutenek hartu duten konpromisoa bete egin behar dute, eta partiduen ordutegia errespetatu beharreko zerbait dela. Partiduen ordutegi guztiak zehazteko daude; izan ere, Musakolako pilotalekuetako baten kon-

ponketa lanak egingo dituzte aurki, eta oraindik ez dakite partidu guztiak Musakolan jokatuko dituzten edo norgehiagoka batzuk Uarkapen izango diren.

TXAPELKETAKO FAVORITOAK

Aurten izena eman duten pilotari askok joan den urtean ere hartu zuten parte txapelketan. Joan den urteko finalistak, Iñigo-Isturitz eta Txori-Urtzi, goiko postuetan izango dira, baina ezin ahaztu hirugarren postuan amaitu zuten Garitaonandia anaiak. Horrekin batera, beste askok pilotan ederto egiten dutela erakutsiko dute txapelketan.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Besaide Mendi Elkartearen eskutik eskalada ikastaroa izango da gaurtik domekara arte

Besaide Mendi Elkarteak eskalada ikastaroa antolatu du oraingo aste bukaerarako. Ikastaroak hiru egun iraungo du. Lehenengo eskola gaur izango da, eta bihar eta etzi izango du jarraipena ikastaroak. Horrekin batera, Besaide Mendi Elkarte dagoeneko hasi da beteranoen irteerarako prestaketa lanak egiten. Irteera hori ekainaren 7an izango da, eta Lizarrusti, Igaratza eta Guardiaetxera egingo dute ibilaldia. Horrez gain, Besaide Mendi Elkarte hasi da dagoeneko Mendi Asteko ekintzak prestatzen.

TXIRRINDULARITZA

Joan den astean hil zen, 91 urterekin, Gregorio Idigoras txirrindulari ohia

Maiatzaren 30ean utzi gintuen Gregorio Idigorasek, 91 urterekin. Egun tristea izan zen Arrasateko txirrindularitzarendako, bere garaian punta-puntako txirrindularia izan zenak agur esan ziguneta. 1912an jaio zen Gregorio, Oñatin; Oñatitik Arrasatera etorri zen bizi izatera, eta parte hartu zuen lehenengo lasterketetako bat Arrasatekoa izan zen. Besteak beste, Eibarko Itzulia eta Espainiako Txapelketa jokatu zituen. Orbea taldearekin korritu zuen, eta orduko Montero txirrindulariaren taldekide izan zen.

HITZALDIAK

Datorren astean kirolari ezagunen hitzaldiak izango dituzte Arizmendiko ikasleek

Ikastolaren Astearen barruan, Arizmendi Ikastolakoek hitzaldiak antolatu dituzte kirolari ezagunekin. Astelehenean Jon Beloki mendizalea Almenen izango da, martitzen goizean San Viator gunean eta eguenean Ferixalekuan. Horrez gain, Eneko Etxebarrieta bizikletan munduari bira eman dion euskalduna ere izango da Arizmendiko hainbat gunetan berbaldia egiten. Beste abenturazale bat ere egongo da: Gari Kortazar. Eta, horrez guztiaz gainera, Realeko eta Athleticeko jokalaria ere izango dira.

ESKUBALOAIA

Hiru asteko atsedenaldiaren ostean AGR Arrasatek Beasainen kontra jokatu du

AGR Arrasate eskubaloia taldeak Kopa Txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu du domeka goizean Beasainen. Partidua goizeko hamaika eta erdietan izango da, eta Pitxi Herreroren mutilek derrigor irabazi beharko dute.

Kopa Txapelketa amaitzeko jardunaldi bi besterik ez da geratzen eta Arrasateko taldea hirugarrena da sailkapenean. Aurretik dauden taldeek AGR Arrasatek baino lau puntu gehiago dituzte, eta hurrengo fasearako sailkatzeko mondragoetarrek norgehiagoka biak irabazteaz gain, goiko talde bietako batek kale egin beharko du. Lehenengo talde biek egingo dute aurrera.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

FUTBOLA

Mondrak Seguran irabaziz gero, hanka bat preferentean izango du

Azken partidua Soraluzeren kontra bada ere, Segurako partidua erabakigarria izango da

XABIER URZELAI

Soraluze gutxietsi barik, denboraldiko partidu garrantzitsuenetako bat -garrantzitsuena ez bada- bihar Mondrak Seguraren kontra jokatu-ko duena izango da. Arrasateko jokalariek badakite zer duten jokoan: urte osoko lana, eta badakite emaitza on bakarra irabaztea dela.

Denboraldia amaitzeko partidu bi besterik ez da falta, eta guztia dago erabakitzeko. Mondrak bere eskuetan du datorren urtean non egongo den erabakitzeko aukera: erregional mailan edo preferente mailan. Preferente mailara igotzeko beharrezkoak diren lehenengo hiru puntuak Seguraren zelaian daude, eta Mondrak inoiz baino gogotsuago joan behar du hiru puntu horien bila.

Mondrako jokalariek irabaztea besterik ez dute buruan, eta horren adibide Illart Etxebarriak joan den astean jokaturako partiduen ondoren GOITBko *Harmailatik* saiorako egin zituen adierazpenak dira: "Segurako partidua gogorra izango da; laugarren postuan daude, baina gu lehenak gara eta irabaztera joan behar dugu".

JOAN DEN ASTEAN 2-0 NAGUSI

Joan den astean Mondrak Eibar-tarrak taldearen kontra neurtu zituen indarrak, eta partiduko gauza onena emaitza izan zen, Mondrak 2-0 irabazi zuen-eta. Par-



XABIER URZELAI

Mondrak etxean bezain emaitza onak eskuratzen ditu kanpoan ere.

tidua ez zen batere ikusgarria izan, eta jokalariek ez zuten beste partidu batzuetan erakutsi izan duten freskotasuna erakutsi. Gol biak Jon Muruak egin zituen, eta, beste behin, argi erakutsi zuen golak egiteko sekulako erraztasuna duela, eta aurreko urteotan baino erregularrago dabilela.

Horrekin batera, azken hilabeteotan min hartuta egon den Ander Bereziartua *Keixi-k* ere minutu batzuk izan zituen, eta hori beti da albiste ona, nahiz eta haren postua bete duten jokala-

riek lan bikaina egin duten.

ZUMAIKOK ETA UROLAK ERE KANPOAN

Mondrak kanpoan jokatu-ko du, eta Arrasateko taldearen kontrario zuzenek ere kanpoan jokatu-ko dute. Zumaiak ez du kontrario gogorra izango, Idiazabalen zelaian jokatu-ko du-eta. Urolak, berriz, ez du partidu erraza izango, seigarren postuan dagoen Pedruskoren kontra neurtu beharko ditu-eta indarrak. Ea Mondrak Arrasateko jarraitzaileen berotasuna duen Seguran.

Arrasaten jokatu zen Euskadiko Open lasterketa arrakastatsua izan zen

Joan den domekan Euskadiko Openeko mendiko bizikleta lasterketa jokatu zen Arrasaten, eta proba arrakastatsua izan zen.

Euskadiko Opena 12 lasterketaz osatua dago, eta domekako proba txapelketako bosgarrena

izan zen. Guztira 114 txirrindularik hartu zuten esku domekako lasterketan, hainbat mailatan banatuta: batetik, kadeteak, gazte mailakoak eta neskak lehiatu ziren; eta bestetik, berriz, 23 urte azpikoak, elite mailakoak, mas-

terrak eta beteranoak.

ZIRKUITU IKUSGARRIA

Musakolako zirkuituak zortzi kilometro zituen, eta zirkuitu ikusgarria zen. Nahiko aldapatsua zen, hau da, eskalatazailendako egokia.

Emakumezkoetan, Ana Yunta Díez irundarra nagusitu zen. Sailkapen nagusian ere lehenengo postuan dago, eta Euskadiko Opena eskuratzea du helburu; elite kategorian, Amurrioko Santi Barranco izan zen garailea, eta ordubete eta hogeita hamahiru minutuan egin zuen ibilbidea. Ibarreko txirrindulari onena, berriz, Iñigo Roldan aretxabale-tarra izan zen. Iñigo bosgarren helmugaratu zen, eta Espainiako Txapelketarako sailkatzea du helburu. Iaz ere Espainiako Txapelketan izan zen, eta 1998an Euskadiko Opena irabazi zuen.



ARTXIBOA

Antolatzaileak gustura geratu ziren lasterketak Arrasaten izan zuen arrakastarekin.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

Atsedenaldi luzea hartu eta gero, taldeak lanera bueltatuko dira bihar.

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - You Know!	2-5
Betrayer - Fuxxion	7-2
Lasagabaster - Etxinai!	7-5
Dribling.es.vg - Bikain Akademia	1-0

B MULTZOA

AC Surcos - Aurrera Bolie	6-1
Koka Juniors - Goma-2	1-0
Iriztu Taberna - Etxerat	1-16

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Betrayer	12	7
2. You Know!	11	7
3. Saukelu Scream	9	7
4. Lasagabaster	8	7
5. Dribling.es.vg	8	7
6. Etxinai!	5	7
7. Fuxxion	3	7
8. Bikain Akademia	0	7

PARTIDUAK

MAIATZAK 10, ZAPATUA. EPAILEAK

12:00: AC Surcos - Saukelu Scream. Antola.
13:00: Betrayer - Koka Juniors. Antola.

MAIATZAK 11, DOMEKA

12:00: Etxerat - Lasagabaster. Antola.
13:00: AT Celaya - You Know. Antola

B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	12	7
2. AC Surcos	12	7
3. AT Celaya	8	7
4. Koka Juniors	7	7
5. Goma-2	6	7
6. Iriztu Taberna	4	7
7. Makanaki	3	7
8. Aurrera Bolie	2	7

LANERA BUELTAN!

HIRUGARREN FASEA JOKOAN

Ia hilabete gelditu egon eta gero, Zaldibarko Txapelketan bizirik dauden taldeak lanera bueltatuko dira oraingo aste bukaeran. Txapelketa luzatzeko asmoarekin, final-laurdenak jokatu beharrean hirugarren fasea jokatu-ko da, eta multzo bakoitzetik sailkatzen diren lehenengo talde biak final-erdietarako sailkatuko dira. Txapelketako zortzi talde onenak geratzen direnez, burugabekeria izango litzateke partidu interesgarrienak zaintzuz diren esatea. Lau norgehiagoketako edozein ikusteko modukoa izango da.

EPAILEAK LAGUNTZA IZANGO DU

Hirugarren fase horretan epaile lanak egitea ez da batere erraza izango, eta epaileak laguntza izango du hartzen diren erabakiak ahalik eta zuzenenak izan daitezen. Partidu bakoitzean txapelketako antolatzaile bi izango dira lanean.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALOIA

BKL CAF Beasain - AGR Arrasate Lehen seniorrak. Domekan. 11:30. Beasainen.	Mondra - Hondarribia Ohor. gazteak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
Bergara - Gatz Museoa Jakion Kadete. mut. Zapatuan. 10:30. Bergaran.	Arrasate - Aitzgorri Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Hondarribia - Gatz Museoa Jakion Gazteak. Zapatuan. 16:00. Hondartzan.	Mondra - Iliintxa Neskak. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

FUTBOLA

Segura - Mondra Lehen erregionala. Zapatuan. 15:30. Seguran.	SASKIBALOIA Jostaldi Kirolak - Kenci Arrasate Seniorrak. Egubakoitzean. 20:30. Azpeitian.
	Kenci Arrasate - Lacor Kadeteak mut. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

ERAKUSKETA/ 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako sarraskia salatzen erakusketa jarri dute

Hogeita hamar bat artistak martxoaren 3arekin lotutako erakusketa gertatu dute

IKER BARANDIARAN

1976an Gasteizen izandako sarraskiaren 27. urteurrenarekin bat, Martxoaren 3ko Biktimen Elkartek eta Arabera Kultura Taldeak 30 bat artista-
ren lanak batu eta liburu bat eta erakusketa bat prestatu dituzte. Gasteiztik Arrasatera ekarri dute erakusketa hori.

1976ko martxoaren 3an Gasteizko San Frantzisko eliza barruan 5.000 langile inguru batu ziren. Poliziak eliza barrura gasak bota zituen eta langileak irten zirenean poliziak tirokatu egin zituen. Bost langile hil zituzten eta ehun zauritu. Zauritutakoek eta hildakoen senideek eta lagunek komisioa eratu zuten. Han gertatutakoa salatu eta sarraskiaren arduradunek erantzukizuna hartzea gura dute.

Martxoaren 3ko Biktimen Elkartek hainbat ekimen antolatu ditu orain arte, hala nola: Gasteizko San Frantzisko elizaren ondoan monolito bat jarri zuten eta hilketa haren 25. urteurrenean *Gasteiz 3 marzo 1976 Un*

recuerdo 25 años despues liburu argitaratu zuten. Liburu hori Amparo Lasheras kazetariak idatzi zuen.

LIBURUA ETA ERAKUSKETA

Hogeita hamar bat artistak euren lanak batu eta liburu bat kalera-
tu berri dute. Liburu horretan martxoaren 3ko gertaerekin lotutako hainbat lan batu dituzte. Besteak beste, komikiak, marrazkiak, argazkiak, eskulturak eta poemak. Lanak egin dituzten artean arrasatear bi daude: Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea, hain zuzen ere.

Liburuan agertzen diren lanekin erakusketa egin dute, eta martxoan Gasteizen egon zen ikusgai. Orain, ostera, erakusketa hori eta elkartearen mezua herri gehiagotan zabaltzeko gura dute. Eta aukeratu duten lehenengo herria Arrasate izan da. Hala, joan den astelehena ezkerreko maiatzaren 5a- Monterronen dago ikusgai erakusketa hori, maiatzaren 18ra arte, hain zuzen ere. Simonides eta Aita Mundinaren komikiak, Zumetaren margolanak, eta beste asko.



Argazkian, Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteko partaide bi eta erakusketa eta liburu koordinatu dituen lagun bat.

RAFAEL LORENZO MARTÍN



DENTISTA

ADI! HELBIDE BERRIA

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu kontsulta lekuz aldatu dugula

Zarugalde kaleko 16an aurkituko gaituzu, etxe berrietan, lehenengo solairuan eskuman.

Tel.: 943 77 12 63





Extremadurarrak ondo dakite jaiak ospatzen, baita antolatzen ere. Horra hor prestatu duten egitarau mardula.

ARRASATE PRESS

KULTURA ASTEA/ Extremaduraren elkarteko XIII. Kultura Astea

Corazon de Encinaren XIII. Kultura Astea, bete-betea

IKER BARANDIARAN

Arrasateko extremaduraren elkarteak, Corazon de Encinak, XIII. Kultura Astea antolatu du. Domekan -maiatzak 11- hasi eta maiatzaren 18a arte, egunero-egunero ekitaldiak izango dituzte Corazon de Encina elkarteak San Andresen duen egoitzan.

Arrasateko extremaduraren Corazon de Encina elkarteak ekitaldi handiak antolatzen ondo dakiela erakutsi du behin eta berriro. Oraingoan, elkartearen XIII. Kultura Astea antolatu du. Domekatik -maiatzak 11- maiatzaren 18a arte, biak barne, elkarte partaideek ez dute atsedenik

izango, egunero ekitaldiak antolatu dituzte-eta.

ASTEAN BARRENA GAZTETXOENAK

Domekan, maiatzaren 11n, elkarteko erreginari eta ohorezko damei banda jarriko diete. 19:30ean izango da; astelehenean, argazki zaharren erakusketa jarriko dute, 19:30ean; martitzenean, gaztetxoendako marrazki, pintura eta idazketa lehiaketak abian jarriko dituzte. Idazketako gaia *Oporrak Extremaduran* izango da; eguztenean, gaztetxoek Mahai Futbol Txapelketa izango dute. Eta txapelketaren ostean Itsumandoka joko eta txokolate-jana izango dituzte.

Eguenean, gaztetxoek

Extremadurako joko tipikoak egingo dituzte, eta horren ostean txokolate-jana egingo dute.

ASTE BUKAERA ADIN GUZTIENAKO

Egubakoitzean, bestalde, helduak gehiago animatuko dira, 18:00etatik aurrera ekitaldi mordoa izango dituztelako: Lehiaketa eta jokoein hasiko dira; horien ostean Caceresko Gatako zonaren gaineko berbaldia izango dute; berbaldia bukatu orduko gose-tuta egongo direnez, saiheski-jana egingo dute; afalostean, musika eta dantza; 23:00etan, elkarteko bazkideek *play-back* jaialdia egingo dute. Horren ondoren, eta ordu-rako indarrak galdu ez badituzte, elkarteko talde flamenkoaren emanaldia izango dute.

Arizmendik Ikastolaren Astea antolatu du

I.B.

Arizmendi Ikastolak Ikastolaren Astea antolatu du. Astelehenean -maiatzaren 12a- maiatzaren 17a bitartean hainbat ekintza egongo dira. Aste barruan Arizmendiko guneetan izango dira ekintzak; zapatuan, ostera, Ikastolaren Eguna kalean ospatuko dute.

Aurten, lehenengo aldiz, ekintza bateratuak egin dituzte Arizmendi Ikastola osatzen duten ikastolek. Hainbat irakasle elkar-

tu eta egitarau zabala antolatu dute. Astean barrena Arizmendiko hainbat gunetan ikasleei eta hango langileei zuzendutako ekintzak prestatu dituzte. Zapatuan, maiatzaren 17an, Ikastolaren Eguna ospatuko dute Arrasaten: Ferixalekuan, Seber Altuben, Laubiden eta Herriko Plazan.

ADIN GUZTIENAKO EKINTZAK

Aste barrurako prestatu duten egitaraua hainbat gunetan banatuko dute: Eskoriatzako J. Aranan, Aretxabaletako Santa Ritan, Eskoriatzako Almenen eta Arra-

sateko Umezaintzan, San Viator Txikin, Olarten, Santa Teresan, San Viator Haundin eta Ferixalekuan.

Astean barrena txikienek dantza, ipuin kontalariak, antzerkia, danborrada, Aiton-amonen Eguna eta Udaberri Jaia izango dituzte; Lehen Hezkuntzakoek jokoak eta herri kirolak egingo dituzte; DBHko lehenengo mailako ikasleek kirolari famatuaren eta bidaiari berbaldiak entzuteko aukera izango dute; eta Batxilergokoek, ostera, Palestina eta euskara izango dituzte berbagai.



Aukera berdintasunaren bidean lantzeko hitzarmena

UBANE MADERA

Udalak eta Kutxa Fundazioak hiru urterako hitzarmena sinatu dute. Hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lantzeko. Urtean 12.000 euro izango dituzte horretarako.

Besteak beste, hitzarmen horri esker, 32 urtez Kutxa Fundazioak kudeatu duen emakumearendako formazio zentroa Udalak kudeatuko du hemendik aurrera. Hain justu, datorren maiatzaren 21ean inauguratuko duten Emakumeen

Txokoan egingo dute hori.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldian Udaleko ordezkariak eta Kutxa Fundazioko ordezkariak egon ziren. Hala, Emakume batzordeko teknikari Maite Barreñak esan zuen sei hilean behin erabakiko dutela zein ekimen egin. Edozelan ere, lanarekin, kulturarekin, aisialdiarekin... lotutako ekimenak bultzatuko dituztela esan zuen. Betiere, berdintasunaren bidean.

Bai Kutxa Fundazioko bai Arrasateko Udaleko ordezkariak oso modu positiboan baloratu zuten hitzarmen hori.

KULTURAPILULAK

Arrasate Lehiaketetako epaia maiatzaren bukaeran emango dute aditzera

AEDk jakinarazi duenez, izazko Arrasate Lehiaketetako epaia maiatzaren bukaeran emango du aditzera. Aurreko urteotako epaiekin alderatuz, aurtengoa atzeratu egin dela azaldu digute.

Bestalde, Arrasate Lehiaketetara aurkeztu den lan kopurua berri eman digute: 77 ipuin jaso dituzte, 20 poesia, 12 komiki eta 15 bertso. Guztira, 124 lan. Irrati erreportajea eta euskalki grabazioa hutsik gelditu dira. Parte-hartzeari dagokionez, 14 urtetik beherakoak 80 lagun izan dira eta 17 urtetik gorakoak, bost.

Arrasateko XX. mendeko industriaren eta gizartearen gaineko liburua kaleratuko dute

2001eko urritik 2003ko martxoaren 31ra arte Leire Parra Arrasateko hainbat edadeturen testigantzak jasotzen ibili da, Arrasateko historia sozio-ekonomikoaren dokumentu bilduma osatzeko asmoz. Lana Arrasateko Udalarai aurkeztu dio, eta hark begi onerikusi du argitaratzea.

Une honetan, Leire Parra bera eta Isabel Aramendia Industria Erakusketako arduraduna liburuari azken ukituak egiten dabiltza. Udalak liburu hori euskaraz eta gaztelaniaz kaleratzeko asmoa dauka, eta 500 aleko tirada atera gura du.

AEDk antolatutako sendabelarren ikastaroa egunean, maiatzaren 15ean, hasiko da

AEDren baitan sendabelarren zale talde bat sortu eta ikastaroa antolatu du. Irakaslea Zorion Intxausti izango da eta egunean, maiatzaren 15ean, hasiko da. Ikastaroan parte hartzeko matrikula 30 eurokoa izango da eta ikastaroa zortzi egunean emango dute, AEDn. Sendabelarren gaineko teoria eta praktika lantzeaz gain, sendabelarrak batu ere egingo dituzte. Izena emateko azkeneko eguna martitzena, maiatzaren 13a, izango da.

E, TXO!

AGAKOK GAZTETXEKO GILTZAK ESKURATU DITU

AGAKOk, Arrasateko gazteen batzarrak, gaztetxe berriko giltzak eskuratu ditu. Apirilaren bukaeran Udalak giltzak eman zizkion AGAKOri, eta dagoeneko gazteak hasi dira gaztetxea apaintzen eta hornitzen. Gazteen asmoa ekainaren erdialdean gaztetxea inauguratzea da, baina gauza guztiak ez daude euren esku, eta gurago lukete atzerapen gehiagorik ez izatea. Gaztetxe berriak oso itxura txukuna dauka.

'LARUNBLAI'

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik Atabal lantegia antolatu du Herriko Plazan. 11:00etatik 13:30era izango da. Eurria egingo balu, udaletxeko arkupeetan egingo lukete.

UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Zabalik dago Txatxilipurdiko udalekuetan izena emateko epea. Maiatzaren 5etik ekainaren 20a bitartean, biak barne, eman dezakezu izena Txatxilipurdiko bulegoan (Pablo Uranga 6). Udaleku irekietan 2000n jaiotako umeendako *Bilin-Bolonka*, Haur Hezkuntzako 3-6 urte bitarteko umeendako *Babylekuak* eta LMHko 1., 2., 3. eta 4. mailakoendako *Bihurri-keixetan* prestatu dituzte. Udaleku itxietan honako kanpaldiak egingo dituzte: Beintza-Labaie-n (Nafarroa), Orion eta Bidarrain (Nafarroa Beherea), hain zuzen ere. Informazio zabalagoa 943 79 54 46 telefonoan.

GUREGAIK/ 'KLOWN' IKASTAROA

"Munduan ez da existitzen barrea baino sendagai hoberik"

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu. Horien artean, *klown* ikastaroa. Tolosako Idoia Sánchez aktore eta irakaslearengana jo dugu, Idoia bera eta *klown*-aren gainekoak hobeto ezagutzeko asmoz.

Noiz hasi zinen antzerkia ikasten edo lehenengo lanak egiten?

80ko hamarkada hasieran Irungo Tok antzerki taldeak ikastaro trinkoa antolatu zuen, eta hara jo nuen mimoa, ahotsa eta moztarok egiten ikastera. Mundu hori asko gustatu zitzaidan eta poliki-poliki hainbat antzerki talderekin egin nuen lan.

Zein antzerki talderekin egin duzu lan?

Askorekin: Tolosako Teatro Circo taldearekin urtebete egin nuen; 90eko hamarkada hasieran Donostiako Teatro Intrepido taldean egin nuen lan. *Ceremonia solsticial* izeneko ikuskizuna prestatu genuen. Oteizaren eta Graves-en poemak, txalaparta, trikitia eta beste elementu batzuk uztartu genituen; geroago, Sebastopolgo Titiriteroekin egin nuen lan; gero, Zingira antzerki taldearekin. Azken bi horiekin umeendako eta helduendako lanak uztartu genituen; 90eko hamarkada bukaeran Berako Lamixiñe bat taldearekin hasi nintzen; eta gaur egun Hendaiako Le Trois Chemins taldean nabil.

Zure kontu ikasi duzu ala ikastaro gehiagotan parte hartu duzu?

Ikastaro askotan hartu dut parte. Hasieran Tok taldekoekin ikasitakoaz gainera, 80ko hamar-

"Oihulari
Klownekin ezagutu
nuen 'klown'-a,
eta txundituta
gelditu nintzen"

"Ikastaro horretan
parte hartzeko behar
den gauza bakarra
da ondo pasatzeko
gogoia edukitzea"

kada erdialdean, Maite Agirrekin batera, interpretazioa, ahotsa eta dantza landu nituen. Gero, 90eko hamarkadan, Trintxerpeko Eskolan Miguel Galindorekin ahotsa interpretazioa eta gorputza landu nituen.

Eta noiz hasi zinen, bada, klown bezala lan egiten?

Klown bezala lan egiten 90eko hamarkada hasieran hasi nintzen, Oihulari Klown taldeko Virginia eta Karmeloren bitartez. Ikastaro trinkoa egin nuen, eta txundituta gelditu nintzen, ez dago *klown*-aren moduko beste ezer. Ikasi eta urtebetera, Virginia Imazek gidatuta, 17 *klown*-ek Daniel Moyanoren *El vuelo del tigre ikuskizuna* prestatu genuen. Oso esperientzia polita izan zen. Horren ondoren Eiohka ta Oihuka Klown taldearekin hainbat ikuskizun prestatu genituen,



ARRASATE PRESS

Tolosako Idoia Sánchezek urte asko daramatza antzerkigintzan eta *klown* lanetan.

umeendako, arazo psikikoak dituztenendako, bai eta Osasun-kume kanpainarako ere.

Zer gurago duzu, klown-a ala antzerkia?

Gurago dut *klown*-a, baina antzerkiak eta dantzak ere oso gauza onak dituzte, horiek ere oso atsegin ditut. Helduen aurrean lan egiteko gurago dut *klown*-a, edozer esan daitekeelako, erdi txantxetan esan arren.

Sarri nahasten ditugulako galdetzen dizut: zein desberdintasun dago pailazoen eta klown-en artean?

Pailazoa zirkoarekin lotuta dago. Ikusleei barre eragiten die edo pailazo batek besteari adarra jotzen dio eta barregarri uzten du. *Klown*-ak, ostera, askoz edukin handiagoa dauka, baita emozio handiagoa ere. Komunikatzeko beste modu bat da, guztiz desberdina.

Eta zer esango zenieke klown ikastaroan izena ema-

teko edo *klown*-a ezagutzeko jakin-mina dutenei. Zer behar da *klown*-a izateko?

Batez ere, ondo pasatzeko gogoia edukitzea. Hori da garrantzitsua. Orokorrean, zer den ezagutzen duen edonor *harrapatu* egiten du. Denok daramagu *klown* txiki bat barruan, eta horri atea zabaldu eta irteten uzten badiogu, barnean daramatzagun gauza politak aurkituko ditugu, barruan geneuzkala ez jakin arren. Ez dago barrea baino sendagai hoberik.

Aurretik klown edo antzerki eskolak eman dituzu?

Bai, bi urtez Tolosako gazte-txoei eta hezitzaileei *klown* ikastaroak eman dizkiet. Horrez gainera, Tolosako ikastolan, luzaroan, *klown* eta antzerki eskolak eman ditut. Eta hemen ere, Arrasaten, ibili naiz. Iaz ipuin kontalari ikastaroa eman nuen Monterrongo kultura etxean. Badut gogoia bueltatzeko.

Aldez aurretik
deitu !



Zenbaki


Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 • Faxe: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arruntia kobratzeko modurik azkarrena.



BEHEKODENDATIK

Fernando Sánchez

TRANSPORTES ZIORLA ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

Fernandok furgonetekin ibilli aurretik konstrukziñuen egin euen lan, baiñe lagun batek lanpostu hori proposatu eutzen, eta ez euen ezetik esan. Oin hiru bazkidek osaketan daue Transportes Ziorla enpresie, eta sarrittan buruhauste haundixek eukitten dittuen arren, gustora dabil Fernando, bere saltsan.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Ez dakit ba, mekaniko-edo.
Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, motorrak gustetan jatela-ko eta kontu mekanikuek ez ditudalako menperaketan.

Ze esango zeuskio Bushei?
Lotsabakue dala, eta ez dala munduen jabie.

Eta Aznarrei?
Beste lotsabako bat dala, eta legez kanpoko gerra batekin ezin dauela oin arte egin dittuen hanka-sartze danak tapau.

Drogak legalizauko zeuke?
Droga bigunak bai.

Eta prostituziñue?
Beste lanbide bat da; hortan, bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?
Seven / La comunidad del anillo/ AC/DC gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?
Australiara edo Kanadara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Andrie, alabie eta janari apur bat.

Etxeko lanik gorrotagarri-xena?

Ontzixek fregetie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez, nahiko pertsona trankille naz. San Isidrota, esate baterako, giro politte egoten da.

Puntuau Mondragueko girue.

Seikue emungo dutzegu.

Ze dauko ona udaberrixek?

Neskak arropa gutxiagukin ibiltten diela.

Zure lanerako ezinbestekue



"Neu motorzalie naz, eta motorran munduari oso jarraipen txikiñe egitten jako"

dan gauza bat?
Poltsikoko telefonue.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Jente asko dau tranpak egitten dauena, baina neu tontuegixe naz horretarako.

Pertsona baten zertan fjetan zara lehenengo?

Berba egitteko moduen. Segittuen igerten dot pertsona noblie dan edo ez.

Denpora librien ze egitten dozu?

Motorrien ibilli eta alabie zaindu.

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, baba platerkada on bat;

"Transportes Ziorlan urgentziatzko zerbitzue eskeintten dogu, Europa osorako"

eta edateko, ure.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Motorran gaineko albiste gehixago irakurriko neuke gustora.

Ze lan egitten dozu?

Urgentziatzko zerbitzue eskeintten dogu. Estatuen eta Europa osuen egitten dogu lan.

Egun asko egitten dittuzue kanpuen?

Ahalik eta gutxien. Parisera juen-etorrixe egun baten egindue dauket; takografirik ez daukugenez...

Emakumien argazkirik euki-ko dozu furgonetan.

Ez, bestela emaztiek akabau egingo ninduke-eta. (Barriek)

NIREBIDAIAHURA/ Mikel Loiti

Peru eta Bolivia / 2003ko otsaila eta martxo

Aurreko kapitulua agertu zenetik hainbat aste pasatu dira; hortaz, bidaiarekin jarraitu aurretik gain begiratutxoa egitea komeni da: Perun hasi zuen bidaiaria Mikelek, eta Perutik Boliviarako bidea hartu zuen. Bolivia Peru baino pobregoa iruditu zitzaion, baina lurralde polita da Bolivia, ez zen damutu hara joateaz.


Boliviako hiri garrantzitsuenetan egon zen Mikel, baina herrixka txikietan ere. Hango nekazarien egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen: "80ko eta 90eko hamarkadetan nekazariak gura adina kokaina landatzen zuten, eta euren dako errentagarria zen. Orain, baina, AEBek kokaina produkzioa kontrolatzen dute, eta boliviarrak ezin dute gura adina kokaina landatu. Hori izan da orain arteko sostengu ekonomikoa, eta ez dira beste zerbaite landatzearen aldekoak, ez dakite-eta zer-nolako etekina aterako ote duten".



"Kokaina-orria probatu nuen: logura eta gosea kentzen ditu"

Boliviako bizimodua gogorra da, eta kokaina-orriak mastekatzeko da bizitza gogor hori aurrera ateratzeko bideetako bat: "Kokaina-orria probatzeko aukera izan nuen; gosea eta logura kentzen ditu". Mikel Boliviako hegoaldean dagoen Uyuniko gatzagaraino iritsi zen, eta paraje ikusgarriak gozatu ahal izan zuen. Boliviako iparralderaino iritsi eta gero, berriro ere Perurako bidea hartu zuen. Arequipan dagoen 6.000 metroko sumendira igo zen, eta Cuscon, Inken imperioko hiriburuan, hainbat egun egin zituen. Hilabete biko gora eta behera ibili eta gero Arrasatera itzultzeko ordua iritsi zen. Limara joateko autobusa hartu zuen Mikelek, eta motxila handia autobusaren maletategian sartu zuen. Motxila txikia, berriz, diru eta dokumentu guztiak zeuden motxila, hanka artean eraman zuen, eta atzeko eserlekuan zegoenak eserleku azpitik motxila zabaldu eta guzti-guztia lapurtu zion. Liman, diru barik, dokumentu barik... Espainiako kontsulatura joan zen, eta jende pilo zegoen sarreran: "Soy ciudadano español" esan eta berehala sartu zuten barrura, eta, zorionez, ez zuen hegaldia huts egin.

XABIER URZELAI



Uyuniko gatzagan paraje ikusgarriak zeuden.

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ZAHARRENETXETIK



Museko txapeldunak, Leintz Gatzagako Esteban Plazaola eta Juan Mari Makazaga.



Briskako txapeldunak, Antzuolako Sabina Agirre eta Karmen Egaña.



Tuteko txapeldunak, Bergarako Jose Mari Akizu eta Felix Eguren.



Xakeko txapelduna, Bergarako Antolin Marchena.

LABUR

Bakardadearen aurkako berbaldia Uribarrin

Martitzenean, maiatzaren 13an, bakardadearen aurkako berbaldia egingo dute Uribarriko erretiratuen elkarteak. Berbaldia 17:00etan izango da eta bakardadearen arazo larria landuko dute.

Gernika Oinezkoen Zumardian ibiliko dira Uribarrikoak

Uribarriko erretiratuen elkarteak ibilaldia antolatu du astelehenean, maiatzaren 12an. Egin berri duten Gernika Oinezkoen Zumardi osoan zehar ibiliko dira; hau da, Uribarritik Eroskiraino joango dira. Interesa dutenek bulegoan eman beharko dute izena. 16:00etan elkartuko dira Uribarriko elkarteak bertan.

Gernikako txangorako beste egun bat jarri dute

Autobusen grebaren ondorioz, Uribarriko elkarteak Gernikara joateko antolatuta zeukan txangoa atzera bota zuen. Orain, osterara, behin greba bukatuta, beste egun bat jarri dute. Eguenean, maiatzaren 15ean, joango dira eta hitzordua 08:30ean jarri dute. Argi ibiliz gero oraindik badago izena emateko aukera!

Eskulan ikastaroa Abaroan, eguazten eta eguenetan

Abaroa erretiratuen elkarteak eskulan ikastaroa bi egunean ematea erabaki du. Horretarako beste irakasle bat kontratatu du. Eguaztenetan, 15:00etatik 17:00etara, Asun Mendizabalek emango du ikastaroa eta eguenetan, 15:00etatik 17:30era, interesatuek Ines Murilloekin jaso ahal izango dituzte eskolak.

Urteroko bazkariko txartelak eskuragai daude dagoeneko

SUDCek erretiratuendako bazkaria antolatzen du, urtero, Musakolako kiroldegian. Aurten ere ez du kalerik egingo, eta dagoeneko bazkarirako txartelak eskura daitezke. Abaroan, esaterako, hasi dira txartelak banatzen. Bazkideek maiatzaren 19tik 23a bitartean eska ditzakete bulegoan, 18:00etatik 19:30era. Bazkide txartela erakutsi behar da.

Debagoieneko ordezkariak gaur jokatu dute, Legazpin, Mahai-jokoaren Txapelketa

IKER BARANDIARAN

Apirilaren 28an (astelehena) Debagoieneko erretiratuen Mahai-jokoaren Txapelketa jokatu zen Abaroan. Eta gaur, egubakoitza, arratsaldean, Debagoieneko irabazleak Urola Garaikoen aurka lehiatu dira Legazpin.

Urteroko kontua da Arrasateko erretiratuen elkarteetan mahai-jokoaren txapelketak egitea. Herriko elkarte bakoitzean mahai-jokoetan irabazten duen bikoteak edo norbanakoak Debagoieneko Txapelketa jokatzeko Abaroa elkarteak. Eta gure eskualdeko txapelketa horretan erabakitzen dute Gipuzkoako erretiratuen elkarteak finala lehiatzeko finalerdietara nortzuk joango diren. 2002ko azaroan hasi ziren herriko erretiratuen elkarrekin guztietan mahai-joko txapelketak, eta dagoeneko badakigu zeintzuk diren eskualdeko irabazleak.

Apirilaren 28an Abaroa elkarteak jokatu du Debagoieneko Txapelketan hainbat bikote lehiatu ziren, eta iluntzean sari bana-keta egin zuten. Irabazleei domina bana eman zieten, eta horren

ostean parte-hartzaile guztiek askari goxoa izan zuten. Debagoieneko hainbat erretiratuen elkartetako bazkideak batzeko aukera polita izan zuten, baita probetxua hartu ere.

DEBAGOIENKO ORDEZKARIAK

Honako hauek ordezkatu dute Debagoiena Gipuzkoako erretiratuen txapelketetan, gaur bertan, egubakoitza: xakean, Bergarako San Josepe elkarteak Antolin Marchenak; billarrean, Bergarako San Josepe elkarteak Gabriel Medinak; briskan, Antzuolako elkarteak Sabina Agirrek eta Karmen Egañak; domino jokoan, Aretxabaletako Basotxo elkarteak Jose Mari Polok eta Eduardo Magallanesek; musean zortzi erregetara, Leintz Gatzagako Toki-Eder elkarteak Esteban Plazaolak eta Juan Maria Makazagak; puntuan, Antzuolako elkarteak Eduardo Etxanizek eta Maria Angeles Nuinek; eta tutean, Bergarako San Josepe elkarteak Jose Mari Akizuk eta Felix Eguren.

Dama jokoan, eskoba jokoan, seikoen jokoan, petankan, tokan eta pilota jokoan ez da Debagoieneko ordezkariarik izango, herriko erretiratuen elkarteetan txapelketarik egin ez delako.

pelketarik egin ez delako.

BESTE TXAPELDUN BATZUK ERE BADAUDE

Gure ibarretik kanpo Debagoieneko erretiratuak ordezkatu ez dituzten arren, eskualdeko Mahai-jokoaren Txapelketan beste irabazle batzuk ere egon ziren. Horra hor Debagoieneko erretiratuen txapelketako txapeldunordeak, hain zuzen ere. Honako hauek eskuratu zuten txapeldunorde saria apirilaren 28an Abaroan jokatu duen txapelketan: briskan, Bergarako San Josepe elkarteak Ana Maria Morazak eta Isabel Rejanok; musean zortzi

erregetara, Antzuolako elkarteak Miguel Jauregik eta Beatriz Gabarainek; eta tutean, Aretxabaletako Basotxo elkarteak Iluminado Hernandezek eta Pedro Garcia.

BESTE BATZUK, OROPESARA

Bestalde, Abaroa elkarteak batzarrereko kideek eta elkarteak bazkideek aisialdiari probetxua hartzeko beste aukera batzuk asmatu dituzte. Domekan, maiatzaren 11n, Abaroako hainbat lagunek Oropesa del Marrera joko dute, eta maiatzaren 18an bueltatuko dira. Hortaz, datorren astean Abaroako bulegoa itxita egongo da.

Finaleraino, bide luzea

Gaur, egubakoitza, arratsalde partean, Debagoieneko erretiratuen elkarteetako ordezkariak txapelketa jokatu dute Urola Garaiko erretiratuen aurka. Artikulu hau idazterako unean txapelketa jokatu barik zegoen; hortaz, ez dakigu zein izan den emaitza.

Hala ere, nahiz eta hainbat mahai-jokotan irabazi, bide luzea dute Gipuzkoako finalera iritsi arte. Donostialdeko eta Bidasoako erretiratuek ere txapelketa izan dute; baita Debabarreneko eta Urola Kostakoek eta Goierrikoek eta Tolosaldekoek ere. Horrek esan gura du Gipuzkoako erretiratuen txapelketako finalera heltzeko beste hainbat eskualdetako irabazleekin lehiatu beharko direla.



ARRASATE
June Davila
Apirilaren 22an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoak, Jokin eta Enara.



ARRASATE
Aitor Murgiondo
Apirilaren 25ean, 2 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARAMAIO
Olatz Altuna
Maiatzaren 5ean, 16 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARAMAIO
Lorea Oianguren
Apirilaren 24an, 15 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ametz Vela
Maiatzaren 8an, 7 urte.
Zorionak! Txema, Susi eta Unai.



ARRASATE
Ana Castro
Maiatzaren 9an, urtebete-tzea. Zorionak! Julian, Ane eta auzokoak.



ARRASATE
Ane Cavia
Maiatzaren 4an, 6 urte.
Zorionak! Marta, familia eta auzoko lagunak.



ARRASATE
Ainara Errasti
Apirilaren 20an, 6 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Xabi Gorostidi
Maiatzaren 2an, 15 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Itsaso Gallastegi
Apirilaren 19an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoak eta Roe.



ARRASATE
Jone Heriz
Maiatzaren 3an, 5 urte.
Zorionak! Aitaren, amaren eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Eneko Parra
Maiatzaren 8an, 1 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Karmele Garai
Maiatzaren 4an, urtebete-tzea. Zorionak! 6-A mailako ikasleen partetik.



ARRASATE
Iker Zubia
Maiatzaren 4an, 26 urte.
Zorionak, Perri! TMT.



ARRASATE
Mikel Mondragón
Maiatzaren 13an, 26 urte.
Urte askotarako, Mon! TMT.



ARRASATE
Zigor Zeziaga
Maiatzaren 15ean, 26 urte.
Zorionak, Txexxi! TMT.



ARRASATE
Jose Gabriel Urizar
Maiatzaren 2an, 48 urte.
Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxeakoak.



ARRASATE
J. Ignacio Gaztañaga
Maiatzaren 13an, 42 urte.
Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxeakoak.



ARRASATE
Eneida Félix
Apirilaren 28an, 10 urte.
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARAMAIO
Jon Beitia
Apirilaren 22an, 6 urte.
Zorionak! Mikel, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Unax Sánchez
Apirilaren 23an, 1 urte.
Zorionak! Osaba Ferren eta izeba Amaiaeren partetik.



ARRASATE
Vicen Cid
Maiatzaren 2an, urtebete-tzea. Zorionak, guapisima! The Sister Group.



ARRASATE
Jon Anduaga
Maiatzaren 20an, 4 urte.
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARRASATE
Leire Iguelmo
Maiatzaren 2an, 8 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Ibai Errasti
Maiatzaren 7an, 8 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.




ARRASATE
Ane Cabrera
Maiatzaren 5ean, 8 urte.
Zorionak! Nagoren partetik.



ARRASATE
Enaitz Sagasta
Maiatzaren 7an, 7 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Ander Gallardo
Maiatzaren 14an, 8 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Joseba Errasti
Maiatzaren 14an, 4 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Jone de la Maza
Maiatzaren 30ean, 8 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Eider Ugarte
Maiatzaren 7an, 19 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Igone Balentziaga
Maiatzaren 8an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ibai Ormaetxea
Maiatzaren 11n, 2 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Lorena Andrés
Maiatzaren 7an, 22 urte.
Zorionak, koras! Lagunen partetik.



ARRASATE
Eli Garai
Maiatzaren 7an, urtebete-tzea. Zorionak! Amaia, Mait...



ARRASATE
Marilu Garai
Maiatzaren 3an, urtebete-tzea. Zorionak! Maria Teresaeren partetik.



ARRASATE
Alberto Agirre
Maiatzaren 13an, urtebete-tzea. Zorionak! Elorrixoko mutil politenari!



ARRASATE
Maider Uribeberria
Maiatzaren 12an, 4 urte.
Zorionak! Etxeko partetik!



ARRASATE
Maria Markiegi
Maiatzaren 10ean, 8 urte.
Zorionak! Familiako partetik!

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora
Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzaz ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Persona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein lekutan zabaldu dituzte orain dela gutxi komun publiko berriak?
Arrastoa: herriko parke handi baten ondoan.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSera!

Col-hogar komuneko papera
Lau biribilki

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOKIN BEREZIBARrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jokin!
Galderen erantzun zuzena:
Saiolanen, lehengo Cerrajeran.

ARRASATEKOHISTORIA

Juan Carlos Guerra genealogista

JON ANDER RAMOS

Donostian jaio zen Juan Carlos Guerra, 1860an, baina Arrasaten eman zuen bizitza gehiena, Guerra-Enea izeneko etxe erautsian. Hil ere Arrasaten bertan hil zen, 1941ean.

Historialaria eta legegizona izan zen eta genealogia eta heraldika alorrak landu zituen, batez ere.

18 urterekin batxilerra zen, eta 23 urterekin Legeetan lizentziaduna. Hain justu ere, ikasketak bukatu baino lehen publikatu zuen *Diccionario heráldico de la nobleza guipuzcoana* lanaren lehenengo atala. Gipuzkoako 500 leinu-etxeren berri eman zuen liburu hartan; eta bigarren atalean, 1888an, beste 400 etxeren informazioa gehitu zuen.


Lan hori guztiori egiteko Gipuzkoa osoa zeharkatu zuen, opor garaian, bereziki, etxez etxe eta artxiboz artxibo. Bidaia horretan, Gipuzkoako leinu garrantzitsuenen aurrekari genealogikoak, heraldikoak eta nobleak aztertu zituen, baita bakoitzaren ikurrak eta haien esanahia ere.

Historialaria eta legegizona izan zen; genealogia eta heraldika landu zituen, batez ere

Besteak beste, Gipuzkoako 900 leinu-etxeren berri eman zuen bi liburutan

Horrez gainera, *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa según el orden de sus familias pobladoras* izeneko lana ere argitaratu zuen, 3.400 bat familiaren gaineko informazioarekin. Eta 1904an *La Heráldica entre los Euzkaldunes* argitaratu zuen.

Bestalde, Oñatin egin zuten Eusko Ikasketen gaineko lehenengo Kongresuan hartu



ARTXIBOA

Donostian jaio zen Juan Carlos Guerra, baina Arrasaten bizi izan zen, eta hil ere Arrasaten bertan hil zen.

zuen parte Juan Carlos Guerrak, eta genealogikaren eta heraldikaren gainean egin zuen berba; geroago *Vocabulario Heráldico* izeneko liburua kaleratu zuen.

Gai beraren gaineko liburu

gehiago ere plazaratu zituen Arrasateko genealogistak; baina, horrez gain, euskararen gainean eta euskarako lanak ere idatzi zituen: harenak dira, besteak beste, *Viejos textos del idioma* eta *Los cantares anti-*

guos del Euzkera. Hain justu ere, azken lan aberats horretan euskal testu eta erromantze zaharren azalpenak egin zituen. Bestalde, euskaraz *Ama Virgiña Arantzazukoaren kondaira* idatzi zuen.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko maiatzaren 9a / 63. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Herriko Udalak eguneroko jardunarekin jarraituko du

UBANE MADERA

Hauteskundeak datozela-eta, zenbait herritarrek kezka dute ea Udalean eguneroko jardunarekin segituko ote duten edo ez. Izan ere, zenbaitetan lana eten egiten dute.

Kontua da zinegotziei-eta lana pilatu egiten zaiela hauteskunde garaian eta udal batzuetan euren lana eten egiten dutela bestelakoa egin ahal izateko.

Kasu honetan, Aramaion, lasai egon daitezke herritarrak. Izan ere, batzorde guztiek lanean jarraitzea erabaki dute.

Hirigintza batzordeak, adibidez, martitzenean egin zuen hori erabakitzeke batzarra. Eta erabaki zuten datorren ekainaren 10era arte lanean jarraituko dutela, ordura arte Iñaki Nafarratek alkate izaten jarraituko du-eta.

Horrela, bada, Hirigintza batzordean abian dauden proiektuek aurrera egingo dute eta jendeak eskatzen dituen lizentziak ematen jarraituko dute.

ZERBITZUAK, EUSKARA ETA KULTURA

Eta gainerako hiru batzordeek ere gauza bera egingo dute: Zerbitzu batzordeko kide Joxe Goronaetak esan digunez, ahal dena bukatu-



Ekainaren 10era arte lanean jarraituko dute Udaleko batzordeak.

ta utziko dute, hurrengo datozenei lana errazteko. Lizentziei dagokienez, berriz, ahal dena aurreratzen dabilzala esan digu, baita lizentziaren bat eskatzeko asmoa duenak lehenbailehen eskatu behar duela ere.


Euskara batzordeko buru Amaia Axpek, berriz, zera esan digu: "Ahal denera arte lanean jarraituko dugu. Botatzen gaituzten arte".

Eta Kultura batzordeko buru Txema Abarrategik adierazi digu akaso batzordearen lana motel-

du egingo dela, baina hartutako konpromisoak bukatu egingo dituztela eta datozenei erantzuna ematen ahalegingo direla.

OSOKO BILKURA

Era berean, hauteskundeak baino lehenago osoko bilkura izango dela iragarri digu Nagore Artamendi idazkariak; hain justu, zenbait gai erabakitzeke zinegotzi guztien parte-hartzea behar izaten delako. Hala, datorren maiatzaren 21ean izango da agintaldi honetako azkeneko bilkura.



Korrika batzordea, pozik

Apirilean euskararen aldeko Korrikak Euskal Herria zeharkatu zuen. Aramaiotik ez zen pasatu, baina aramaioar askok bat egin zuten, Korrikan bertan parte hartuz edo dirua emanez laguntzeko. Hain justu, herriko Korrika batzordeak jakinarazi du 931,1 euro batu dituztela herrian, eta eskerrak eman gura die parte hartu duten kultura taldeei, elkartei, herritarrei eta Udalari.

HERRITARREN HITZA / Asier Agirre • AHTren aurkako taldeko kidea

Demokrazia ustela

Hitz hauek idazterakoan nire amorrazioa islatu nahi nuke, ikusita euskal herritar askoren eskubideak zanpatuak direla. Euskal gizarteko zati baten aukera politikoak errespetatu ez eta mapa politikotik kanpo uzten dituzte. Momentu hauetan Aramaio herri plataforma (hAMAlau) eta AuB aukera politikoetatik kentzen dizkigute. Zeren heldurra dute ba? Herritik sortu diren aukera horiei bidea galarazteko eta herrikoak ez diren beste batzuk etorriz gure Udaletan muturrak sartzea. Gu bizi gara herri hauetan eta guk esango dugu nork bideratuko dituen gure instituzioak. Nik, behintzat, zilegi ikusten dut AuBren eskaera, banatuko dituzten boto-txarteekin bozka emanez;

eta espero dut herrietako plataformek ere boto-txartelak banatzea, gure bozka eman ahal izateko. Hauteskunde biharamunean ikusiko da herritarren aukera. Eta ikusiko da nolakoa den zenbait politikoren jarrera; eskubide guztiak guztiontzat eskatzen dituzten horiek besteon aukerak errespetatzen dituzten edo eurei estatu espainolak ematen dien legimitateak aprobetxatuz euren politrona-goseak aseko dituzten.

Izan ere, gure herriaren aurka dagoen gurutzadak herritar asko espetxera eraman



"Euskal Herria herri bat da Aturritik Ebroraino"

ditu eta beste asko klandestinitatera. Azkenaldian, gainera, ikusi dugu zenbat herri-mugimendu, alderdi politiko eta egunkari itxi edo euren legeetatik kanpo utzi dituzten. Euskal herritar garen heinean, gure legedia izatera bultzatu behar ditugu gure institu-

zioak, Euskal Herria herri bat delako Aturritik Ebroraino, eta herritar asko eta asko garelako hori nahi dugunak: herri izaera eduki eta bakean eta askatasunean bizi.

Udalbiltza egiten dabilen lana ikusita agintari espainolek taldeko kide batzuk atxilotu eta bulegoak ixtea erabaki dute, Udalbiltza joko kanpo uzteko. Gure lana da lan horrekin aurrera jarraitzea, gure herri izaera mantenduz eta aurrera eginez. Hor dago EHNA, euskal herritar garelako ziurtatzen duen agiri bakarra, euskaldun guztiok eduki beharrekoa. Horren harira, esan beharra dago txalogarria dela zenbait euskaldunek hartu duten jarrera: urte andana ihesean ibili eta gero etxera itzuli dira EHNA eskuan hartuta, tartean, Santi Iparragirre eskoriatzarra eta Mikel Piedehierro arrasatearra. Ongi etorri etxera.

LABUR

Antzerkia eta erakusketa Anboto tabernan

Gaur, barikua, musika kontzertua barik antzerkia ikusteko aukera egongo da Anboto tabernan. Hain zuzen, Las Torpedolevel taldeak *Las chicas serias no gustan* izeneko lana antzeztuko du, 21:30ean.

Bestalde, kultura ekimenak egiteko ohiturarekin jarraituz, datorren maiatzaren 16ra arte Idoia Elexpuru egindako margolanak ikusteko gai eta salgai egongo dira tabernan. Aretxabaletarra da Idoia Elexpuru; batez ere, itsasoarekin lotutako paisaietan oinarritutako lanak ipini ditu Anbotoko erakusketan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ARAMAIOKO EUSKARA

Bihar, zapatua, *Aramaioko Euskara* liburua aurkeztuko dute kultura etxean. Txipi Ormaetxea irakasle arrasatearrak idatzi du liburua. 12:30ean izango da aurkezpen ekitaldia. Idazlearekin batera Udaleko ordezkariak ere egongo dira.

PILOTA PARTIDUAK

Lau t'erdiko Txapelketaren barruan, ETB Kantxa sariari dagozkion partiduak izango dira gaur, barikua, 21:15ean, pilotalekuan.

ARETO FUTBOLA

Bañerako neskendako atsedendaldirako garaia iritsi da. Azken partidua galdu zutela-eta, txapelketa-tik kanporatuta geratu dira. Kadete mailako mutilek, berriz, Laudion izango dute bihar norgehiagoka, La Milagrosa taldearen kontra. Partidua 10:00etan hasiko da, La Granja kiroldegian. Eta gazte mailakoek etxean jokatu dute, 11:00etan, Cafeteria Atenearen kontra.

ZINEMA

Aventuras en Alaska filma emango dute.

GIZARTEA

Zabalik dago eskola garraiorako dirulaguntzak eskatzeko epea

Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, eskola garraioa erabiltzen dutenendako aurtengo dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dute. Hain justu ere, maiatzaren 23a baino lehen egin behar dira eskaerak.

Honako ikasketak egiten dabilzanek jaso ditzakete herriko Udalaren dirulaguntzok: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Arrasate-Aretxabaleta Institutuko ikasleek izan ezik); HSAOG (LOGSE); erdi eta goi mailako heziketa zikloak edo unibertsitate mailako ikasketak.

Dirulaguntzaren eskaerarekin batera, ikasketen matrikularen ziurtagiria edo matrikularen ordainagiria aurkeztu beharko du interesdunak.

Lehen esandako moduan, datorren maiatzaren 23a baino lehen egin behar dira dirulaguntza lortzeko eskaerak, Aramaioko udaletxearen bulegoan, hain zuzen ere.



BOTEPRONTOAN/ Susana Martínez · Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langilea

“Aramaion eskaera handia dago; egunero dator jendea eta ia-ia ordu guztiak ditut okupatuta”

Susana Martínez Kintanakoa da, nahiz eta orain Gasteizen bizi den. Ia urtebete darama Aramaion lanean. Ordezkapena egiten hasi zen; gero lege berri bategatik erabaki zuten bi lagun ibili behar zirela Zuiako Koadrilako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan lanean, eta lanean segitu zuen:

Orain berriro handitu dute zerbitzua, ezta?

Bai. Aramaiora eguaztenetan etortzeaz gain, orain barikutan ere etortzen naiz, 08:00etatik 12:00etara.


Nahikoa da ala sarriago etortzea komeniko litzateke?

Lehen baino askoz hobeto gaude, baina niri ez dagokit gehiago behar den edo ez esatea.

Aramaiog gain, beste herri batzuetan ere egiten duzu lan?

Arratzu-Ubarrundiara joaten naiz, apirilaren laz geroztik. Horrez gain, Legutianora eta han inguruko herrietara ere joaten naiz.

Zein zerbitzu eskaintzen duzu? Oinarrizko Gizarte Zerbitzua da. Jende guztiari dago zuzenduta, gazte zein helduei, bikoteei zein bestelakoiei... Edozein zalantza izanez gero etor daiteke. Gure zerbitzuak Diputazioarekin harreman zuzena dauka eta haiei esker zerbitzu zehatzak



eskaintzen ditugu, eskaeraren arabera. Adibidez, hirugarren adinekoekin lan handia egiten dugu: batez ere, egoitzen gaine-ko informazioa eskatzen dute, baita etxer etxeko laguntza zerbitzua ere.

Zer egiten duzu etxer etxeko laguntzaren barruan?

Lehenik eta behin familia ezagutu behar izaten dugu. Horretarako, bisita egiten diogu, eta familiaren, etxebizitzaren eta familiaren egoeraren berri izaten dugu. Horren ondoren ebaluazioa egiten dugu, Foru Aldundiari gure proposamena egiteko. Eta Foru Aldundiak erabakitzen du zer egin behar dugun, zenbat orduz lan egin... bai pertsonekin lan egiteko orduan, baita etxeko lanak egiteko orduan ere.

Eta gazteei dagokienez, zein zerbitzu ematen duzue?

Edozein motatako arazoan gainean egin dezakegu berba: eskolako arazoak, gurasoekin dituzten arazoak, norik bere buruarekin dituen arazoak... Arazo horiek konpontzeko nora jo dezaketen esango diet nik, aholkulari moduan.

Aramaiog eskaera handia dago?

Bai. Oraindik ez dugu egin ikerketa zehatzik, baina egunero dator jendea eta ia-ia ordu guztiak ditut okupatuta.

Zeintzuk dira eskaera nagusiak?

Hirugarren adinekoekin eta elbarrituekin zerikusia dutenak. **Zureaz gain badago bestelako zerbitzurik?**

Gizarte zerbitzuaz gain Zuriñe teknikaria ere badago eta bi astean behin Koldo etortzen da (auzokideen aurrezaintzarako teknikaria). Hiruron artean nahiko zerbitzu zabal eskaintzen dugula uste dut.

Zer egin behar da zurekin egiteko?

Udaletxera deitu, eta hemen ez banago eurek esango dizute non nagoen.

Aramaion jendeak badu zuregana etortzeko ohiturarik?

Uste dut zerbitzua oso ezaguna dela; izan ere, herritarrekin lan egiteaz gain, elkarteekin ere harremanetan gaude.

“Foru Aldundiak erabakitzen du zer egin behar dugun, zenbat orduz lan egin behar dugun”

“Gazteekin edozein arazoan gainean egin dezakegu berba, eta gero aholkulari lanak egin”

ERRETRATUZAHARRA

Arrasatearrak
Gorbeia
gurutzean

Udaberrian gaudela-eta, mendira joko dugu oraingo asteko argazki zaharrarekin. Atzeko gurutzea ikusita, erraza da asmatzea Gorbeia mendia dela. Urtea, berriz, 1952a da.

Argazkiko gure protagonistak egun pasa joan ziren mendira; mondragoetarez betetako autobusa atera zen egun hartan Arrasatetik. Gaur egun moduan, orduan ere, mendira joateko ohitura handia zegoen. Gure berriemai-leak kontatu digunez, sarri asko joaten ziren inguruko mendietara: Aizkorrira, Udaltxera, Kurtzebarrira...

Honako hauek agertzen dira argazkian: ezkerreko neskatila Arregi Luko da, eta lekaimea da gaur egun. Zeleta baserrikoa du aita; Epeleko beheko aldean zegoen baserri hura, Kanpanzarrera bidean. Eskumako neskatila, berriz, Zorione Uriarte Muxika da, eta gaur egun Bartzelonan bizi da. Eta bien erdian dagoen gizonetako Joseba Uribetxeberria da.

Atzean ikusten den gurutze ezaguna 18 metro garai da, eta Gor-



beian eraikitako hirugarren gurutzea da. Aurrenekoa 1901ean bedeinkatu zuten, 33 metro garai zen, Jesukristo gurutzatu zuteneko adinaren irudi, baina ekaitzak bota egin zuen; bigarrena 1902ko urrian bedeinkatu zuten, 1906ra arte egon zen ipinita, eta gero erori egin zen.

Gaur egun dagoen gurutzea Serapio de Goikoetxe y Palaciok egin zuen, 1907an.

Bestalde, zenbait bitxikeria ere badira Gorbeia mendiaren baitan: 1924an Emilio Álava eta Ignacio Laskarai Citroen VI-399 markako automobil baten igo ziren Gorbeia

mendira, Muruatik; eta 1926an, berriz, Bilboko Athleticcek postontzia ipini zuen gurutzean.

Argazkia eta informazioa:

Barrutia-Uriarte
Urtea: 1952

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

1932ko
Maiatzaren
Lehena

Lekuak aldatzen diren moduan, tradizioak, Lohiturak eta aldarrikapenak ere aldatu egiten dira. Argazki hori 1932ko maiatzaren lehen dago aterata, Maala kalean, Portaloiauren aurreko aldean. Dagoeneko 100 urte baino gehiago pasatu dira Chicagoko gertaeretatik, eta 30eko hamarkadan egun horrek orain baino indar handiagoa zeukan.



≈ 1932 Maiatzaren Lehena langileen eskubideen alde borroka egiteko eguna da. Bada, asko hil egin dira horretan.



2002 1886ko Maiatzaren Lehenean hainbat manifestari hil ziren, Chicagon, poliziak tirokatuta. Hedabideek ere erantzukizun handia izan zuten.

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28

Autodeterminazioaren alde bozkatu



HERRIAN
HERITZA

HERRI
HERITZA

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

